



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2017ko urtarrilaren 14a | XXXVII. urtea | 677. zenbakia



Maika ARIZTEGI

Garaile Emakumezkoen I. Urrezko kopan → 45

Gehigarri berezia

Inauteriak → 23-30

IGANTZI → 16

Liburutegi zerbitzua martxan jarri dute

BERA → 11

Mendi Egunaren X.edizioa urtarrilaren 14an

LEITZALDEA → 33

Herri-galdeketa egiteko sinadura bilketa martxan

BAZTAN → 36

Etxebizitzan alokairua bultzatzeko egitasmoa

INAUTERIAK



GORDEAN ETA AGERIAN

ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Mozorroa soinean jarri eta karrikak umorez betetzeko tenorea heldu da. Nortasuna gordeta, xirika eta irrika... begirada guztien jomuga izatekoa. Hastear dira inauteriak!



KIROLA → 11

Ander Errandonea eta Iñigo Martinez pilotari beratarrek profesioletara jauzia egin dute.

ERREPORTAJEA → 3-5

Mendea bete duten eskualdeko herritarrak

Ehun urte bete dituzten zortzi herritarren historia eta istorioak bildu ditu TTIPI-TTAPAK.



BAZTAN → 35

Euskal literatura beltza hizpide eta ardatz ilbeltzaren 16tik 22ra.

ZOKKETAK → 52



Erabili **Ttipi txartela**

pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

probexu aukera!

Atera
TTIPI TXARTELA
hemen



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Instalazio Elektrikoak:
Industria, etxebizitzak, komertzioak...

Instalazio automatizatuak eta programatzaileak:
Partner zenbakiak 37050 eta 43139

Proiektu elektrikoak. Kolegiatu zenbakia: 3868

Goi mailako kalitate zerbitzuak:
- MOBOTIX bideozaintza
- SONOS musika

fenienergía

Energia sentitzeko bertze modu bat



Dirua aurreztu nahi duzu?

Zure konfiantzazko instalatzailearekin baino hobere, norekin?

Domotikaren abantailak:

Energiaren kostua murriztea zereginak automatizatuz
Segurtasuna hobetzea
Pertsonen bizi kalitatea hobetzen da
Mantenerako zerbitzuen efizientzia hobetzen da
Kontrola eta egiaztapena
Zerbitzuak urrunetik gestionatzeko aukera



Elektrizitate eta Gas Fakturak aztertzen ditugu dirua aurrezteko helburuarekin, **konpromisorik gabe**

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab. | T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046 | jmandueza@tximistindar.com | jmiriarte@tximistindar.com



Urtarrila



Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus



<p>05 ORTZEGUNA</p> <p>EKITALDIA ERREGE KABALGATA 15:30 Errege pajeak herriko karriketan barna ibiliko dira gutunak biltzen. 18:30 Errege kabalgata (ibilbidea: Itzea auzotik Herriko Etxeko plazara)</p> 	<p>20 ORTZIRALEA</p> <p>IPUINA SU GALDUAREN BILA Ipuin aurkezpena Aitziber Almandoz 18:00 Beralandetan</p>	<p>28 LARUNBATA</p> <p>HITZALDIA EL ORIGEN DEL CASERIO VASCO Alberto Santana 12:00 Beralandetan</p>
<p>14 LARUNBATA</p> <p>EKITALDIA MENDI EGUNA Eskalada tailerra, Santa Barbara ibilaldi gidatua, binakako kronoigoera, dokumentala Kultur etxean, afari herrikoia...</p>	<p>22 IGANDEA</p> <p>MAGIA IKUSKIZUNA SPECTACULAR MAGIC SUN MAGOA Euskaraz 17:00 Kultur Etxean Sarrera: 5€</p>  <p>Argibide gehiago: www.magoo.com</p>	<p>ISIDORO PAGOAGA Musika Eskolako Emanaldiak</p> <p>23 ASTELEHENA</p> <p>GITARRA ENTZUNALDIA 18:00 Musika eskolan</p>
<p>15 IGANDEA</p> <p>EKITALDIA MENDI IRTEERA Agerra-Manitale-Ibardin</p>	<p>27 ORTZIRALEA</p> <p>IPUINA HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA Eneko Haritza 4-8 urte Munduan asko bezala (munduko herri ipuinak) 18:00 Herri liburutegian Iraupena: 50 min. Argibide gehiago: www.haritza.eus</p>	<p>24 ASTEARTEA</p> <p>HAIZE-INSTRUMENTU ENTZUNALDIA 18:00 Musika eskolan</p> <p>30 ASTELEHENA</p> <p>TXISTU ENTZUNALDIA 18:00 Musika eskolan</p> <p>31 ASTEARTEA</p> <p>PERKUSIO ENTZUNALDIA 18:00 Musika eskolan</p> <p><small>Antolatzailea: Ináburu Pagosga Udal Musika Eskola</small></p>

GIZARTEA → ESKUALDEKO ADINDUENAK

Urtetako bizipenak kontatzeko

Mendea bete duten eskualdeko zortzi herritarren istorioak

Zifra borobila da ehun. Are gehiago pertsona baten adinari buruz solasten ari bagara. Historia liburuetan orrialde aunitz egin behar da gibelera beraien jaioturtera iristeko. Gerra Zibila hasi zenean, adibidez, hogeitaz zortzi urte zituzten. Beraien

bizimodua, gizartearen eta herriaren izan diren aldaketak... izan dituzte hizpide beraiek edo beraien senideek. Errandako kontu guztiekin laburpena osatu du TTIPI TTAPAK, guztiak ezin kabituz, ehun urtek askorako ematen dute eta.

Eneritz IRAOLA

Demografia datuei begiratu gero, piramidearen goiko-goiko puntan ageri dira. Ez dute aunitzek lortzen bertara ailegatzea. Zehazki, Nafarroako estatistika zentroaren arabera, gaur egun, Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka, Zugarramurdi eta Urdazubin 8 herritarrek dituzte 100 urte edo gehiago.

Horien artean daude, Tomasa Gorosterrazu (Zubieta), Manuel Arregi (Oronoz), Candida Jauregi (Amaiur), Martin Maiora (Elizondo), Salvadora Arburua (Etxalar) eta Pakita Eraso (Elizondo). Maddi Hardoyk (Zugarramurdi) berriz, apirilaren 8an beteko du mendea.

Hainbertze urtez bizitzeko sekretua zein ote den jakin nahi izan du TTIPI-TTAPAK eta galdera egindakoan mota guztietako erantzunak jaso ditu. Erraza dela aipatu du Manuelek «ez hiltzea» eta Martinek esplikazio zehatzik gabe «halaxe tokatu zaiela» dio. Candidak berriz, «gainen horri (Jainkoari) galdegiteko». Pakitaren kasuan berriz, musikak zeresan handia izan duela dirudi. Bertzelako aholkuak eman ditu Maddik «osasuntsu jatea, salda baratzeak egunean» eta batez ere «baikor izatea, bizitzaren gauza ona eta txarrak ahalik eta hobekien hartu, eta geroko planak izatea».

TOMASA GOROSTERRAZU EZKURRA. Zubieta (100 urte)

1916ko maiatzaren 16an jaio zen Tomasa Irteko Bordan. Hamaitzaka senide ziren eta haurtzaroa bertan eman zuen, bai etxe eta baita beste baserrietan laborantza lanetan laguntzen. Hogeita hamar urterekin Domintxenera ezkondu zen Domingo Juanikorena Santestebanekin eta bost seme-alaba izan zituzten: Lucio, Pakita, Itziar eta Floren. Eta familiak hazten segi du bost iloba eta bost biloba baititu. Senarrarekin batera laborantza lanetan eman du bizitza osoa. Eta egun, memoria zertxobait lausoa duen arren, ahoan beti irribarra duela diote bere senideek.



JAIOTEGUNA

1916ko maiatzaren 15a.

JAIOTETXEA

Irteko borda (Zubieta)

MANUEL ARREGI GOÑI. Oronoz (100 urte)



JAIOTEGUNA

1916ko urtarrilaren 28a.

JAIOTETXEA

Arretxea (Oronoz)

Sei anai-arreba ziren Oronozko Arretxean «ni mutil bakarra eta 5 arreba». Horregatik, hasiera batean soldaduskatik libre gelditu behar zen «nire aita jaio-

tzez maingua eta ni seme bakarra nintzen, etxea eta azien da gobernatzeko nire beharra zegoelako». Baina gerra hasitakoan deitu egin zuten «hiru urte pasatu nituen: Teruel, Ricla, Extremadura...». Gerra gogorra izan zela dio, eta ondorena «arras gogorra, baina lurra eta animaliak etxean izanik inoiz ez zaigu janaririk falta. Arras pobreak ginen baina, egunero banabarrak, zerrikia eta ogia edo artopila bederen izaten genuen jateko».

FAMILIA HANDITZEN

33 urtekin, 1949an Dolores Etxeparerekin ezkondu zen «lau seme-alaba izan ditut: 2 neska eta 2 mutil; gainera 8 biloba eta 5 birbiloba eta seigarrena bidean». Urte guzti hauetan aldaketa handiak ezagutu ditu «hasieran ez genuen ura etxean; bederen egunean bi aldiz iturrira joan be-

har zen bi pozal haundirekin ur bila. Gero ura etxean jarri genuen eta arras aurrerapen handia izan zen baina neguan tuleriak etxe barruan hormatzen ziren».

«Kotxerik ez dut izan. Aberatsek izaten zuten. Orain denak aberatsak dira, etxe guztietan ikusten dira kotxeak, bat baino gehiago gainera»

Bizikleta zuen kotxearen partez «gogoan dut nire lehenbiziko bizikleta izan nuenean. Bigarren eskukoa zen baina munduko erregea sentitzen nintzen bere gainean». Gero Mobilett bat izan zuen eta «88 urterekin oraindik mobilettean ibiltzen nintzen».

Aurrerapenen artean, telebista du gustuko «pilota partida fron-

toian eta zuk zuzenean etxean ikusten ahal duzu».

ANEKDOTAK

Bizitza osoa nekazari eta abeltzain aritu da, «eta diru gehiago ateratzeko kaolin zakuak trenetan kargatzera joaten nintzen. Bi pezeta ematen zituzten toneladako». Egurra egiteko baimena «Cuatro pueblos-en» Berroaranen, zuen «bi astoekin Bertizen barna ekartzen nuen eta gogoa dut behin, aurreko egunetan euri pila egin zuelako Bertizko pistatik heldu nintzela egurrez kargatuta bi astoekin. Don Pedro Zigak arretoa deitu zidan menditik etorri ordez, pistatik heldu nintzelako eta nik erran nion: *No es por mí, es por estos que se les hunden las patas en el barro.*— eta erantzun zidan: *-Ah, bueno, entonces sigue.* Gupida gehiago izan zuen astoengatik nigatik baino».

CANDIDA JAUREGI MAGIRENA. Amaiur (101 urte)

JAIOTEGUNA
1915eko irailaren 3a.
JAIOTETXEA
Salaberriko borda (Amaiur)

Amaiurko Salaberriko bordan sortu zen Candida 1915eko irailaren 3an «hiru senide ginen, bi mutiko eta ni neska». Bertan eman zuen haurtzaroa eta 7 urterekin hasi zen eskolan «neskak 12 urteak artio joaten ginen eta mutikoak 2 urte gehiago, 14 urteak artio». 37 urterekin ezkon-

du zen eta lau seme- alaba izan ditu «bi mutiko eta bi neska». Gero, hazten joan da familia «zazpi biloba ditut eta birbiloba bat».

GERRA GARAIK

Gerra zibila bete-betean bizi izan zuen eta «gauz nigergarri da. Nere bi anaiek gerran ibili ziren eta etxean laguntzeko anaien partez peoiak ekarri behar izan genituen». Tarteka izaten omen zituzten anaien notiziak «eta paketeak janarie eta sos zerbait ere

«Argie beti ezagutu dugu. Karrikan bazen argia eta gu bordan bizi ginenez, karburua izaten genuen etxean. Giltza batzuetatik pizten ziren».

«Autoa ere sortu zuten baina guk ez dugu inoiz autorik izan. Konten bizikleta sortu zutelarik, hura ibiltzen ginuen guk!».

igortzen genizkien. Elizondon etxe bat izaten zen eta handik arreglatzen ziren frentera gure anaiei gateko». Zorionez, ez omen zuten goserik izan «guk ogia egiten genuen etxean. Nekazariak borona (artoa) izaten zuten ez zen goserik pasatzen, etxean ogia egiteko modurik ez zutenek zementa iduriko ogi gogorra izaten zuten». Baztanen bertan ere, eguneroko bizimoduan eragin zuzena izan zuen gerrak «gerrako zaurituak Lekarozko konbenturet gaten zituzten han sendatzeko eta kapitala konkistatzen

zutelarik ezkilak jotzen zituzten». Gerra akitu zenekoa ere gogoran du «ni Urdazubin nintzen izeba bat zaintzen. Konten ginen, anaiek etxerat itzuli baitziren. Badiara bi amaiurtar gerran hil zirenak».

ALDAKETAK

Ehun urte hauetan, egunerokoa izan diren aldaketei buruz galdeginda, aipatu du argia beti ezagutu izan dutela «gu bordan bizi ginen baina karrikan bazen argie. Eta guk etxean karburue izaten genuen. Giltza batzuetatik pizten ziren, karburu hauek depositu bati lotuak egoten ziren eta deposituak barnean ura eta harriak izaten zituen». Autoa, aldiz, ez dute sekula izan. «Konten bizikleta sortu zutelarik, hurre ibiltzen ginuen guk». Berrikuntzez solasean hasita, garbigailua ezin aipatu gabe utzi «labadora sortu zutelarik bai konten, eskuz garbitzen lan gutiago!». Gauza batzuetan aitzinera, baina berteetan gibelera egin dugula uste du ordea «oraiko jendea eta lehenagokoa ez da berdina, lehenago jendea hobea zen».

MARTIN MAIORA ISTILART. Elizondo (100 urte)

JAIOTEGUNA
1916ko uztailaren 22a.
JAIOTETXEA
Antzanbordaundi (Elizondo)

Beartzungo Antzanbordaundia baserrian jaioa da Martin «bertan bizi izan nahiz beti eta bertan hil nahiko nuke» dio. Beti

«Bizitan pasatu ditudan egunik makurrenak bertan bizi izan ditut (Gerra Zibilean). Taldeko bati edateko ura eskatuta ukatu egin zidan».

«Gogoan dut nire ama nola etorri zen behin erranez Elizondon agertu zela karro bat behorrik gabe ibiltzen zena, hori zen kotxea».

baserrian egon da, «sei urte nituenean hil zen aita eta hiru senidetan zaharrena nintzen ni geratu nintzen baserriaren kagu». Beti aritu da baserrian «soldatapeko lanik ez dut inoiz izan» gaineratu du. Beartzun auzoan eman du bizi nahiz eta eskolan Elizondon ibili zen «espreski gaten nintzen Beartzundik oinez Elizondorat. Han Akerreta izeneko irakasle batek azalpen guztiak eskua-

raz ematen zizkigun». Bertzenaz, Gerra Zibilean ibili da herritik kanpo. 1936an 20 urte bete zituen gerrara deitu zutenean «beldur handiarekin bizi izan nuen garai hura. Ihes egiten bagenuen ez ginela etxera bueltatuko erraten ziguten». Asturias aldera eraman zuten eta «han metrailarekin golpatu ninduten baina ez nintzen hil. Santanderko Hospital de Valdesillara eraman ninduten». Denbora dezente egon zen eritua eta horrek izan omen zuen bere alde ona «erituta geundenok treneko pasea libre genuen eta horrela Euskal Herriko herriak ezagutzeko aukera izan nuen». Sendatu zenean berriz Huesca aldera eman zuten «bizitan pasatu ditudan egunik makurrenak bertan bizi izan ditut. Taldeko bati ura eskatuta ukatu egin zidan». Dena den, ez du gorrotorik «niri tiroa botatzen zidana, miserable bat zen ni bezalaxe eta aukera banu besarkatuko nuke» dio.

Gerra ondoan berriz, «gosea eta miseria sartu zen. Espainiako zorrak ordaintzeko behiak bahitzen zituzten... eskerrak Frantzia hurbil genuen».

ALDAKETAK

«Ur korrientea izatea grifoan, karretera, argia, telefonoa... dena berria izan da niretzat». Aldaketa horiekin lotuta umetako anekdota bat ere aipatu du «gogoan dut nire ama nola etorri zen behin erranez Elizondon agertu zela karro bat behorrik gabe ibiltzen zena, hori zen kotxea». Hala ere bere iduriko, egon diren aurrerapauso handienak bi dira bere erranetan «pentsioa jartzea. Lehenago zaharrak baino aunitzez hobeki bizi gara gu eta baita karretera ere». *Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu eta bizitzako momentu gogorren ondotik lema bat egin dugu bere Martinek «zer egin behar duzu? Beharretan aurkitzen dena lagundu».*

SALVADORA ARBURUA ARRIBILLAGA. Etxalar (100 urte)



JAIOTEGUNA
1916ko maiatzaren 30a.

Etxalarren sortu zen eta bertan darama bizi osoa Salvadorak. «Inguruko etxe batzuetan bizi izan ginen, baina oraindik ttikia nintzela Perukiñenea erosi zuten gurasoek eta geroztik bertan bizi izan naiz». Hamaika senide sortu ziren «baina bizi bederatz, ni nintzen zaharrena eta ama gazte gelditu zenez alargun etxean geratu nintzen berari laguntzeko». Horretaz gain, «komisaria garbitu eta Salvadoraren ostatuan laguntzen» ere aritzen omen zen asteburuetan. Garai bateko eta egungo bizimoduaren artean «gauza aunitz kanbiatu» direla dio «lehen denak landetan aritzen ziren eta orain fabriketan». Garbigailurik ere ez zen, «dena eskuz garbitu beharra izaten zen errekan eta eskuak zartatuta izaten genituen hotzarekin. Pentsa, zer pila izaten genuen... Etxean senide au-

nitz eta osaba bat ere etorri zen gurekin bizitzera». Hizkera ere aldatzen doala iruditzen zaio «nire ilobak eta nik erraterako, ez dugu berdin solasten». Eta herrian ere, nabari du aldaketa «lehen denda aunitz ziren, hamalau bat bai eta Zugarramurditik etortzen ziren astoekin ogi eske». Orain berriz, «denda kopuruak beheiti egin du baina kotxeak nonahi» ikus litezkeela gaineratu du «lehen kamioi bakarra zegoen herrian eta autobus bat ere bai. Kotxerik ez zen apenas, medikuak izanen zuen akaso». Sukaldeko mahaian, egunkaria aurrean duela agurtu dugu Salvadorak «periodikoa egunero leitzen dut. Aitak ere bazuen ohitura, harrapatzen zuen edozein paper leitzen zuen».

MADDI HARDOY GURRUTXAGA. Zugarramurdi (99 urte)

JAIOTEGUNA
1917ko apirilaren 8an.
SORLEKUA
San Juan de Capistrano
(Kalifornian)



Eskualdetik urrun sortu zen Maddi «San Juan de Capistranon, Kalifornian. Aita eta ama harat ganak ziren nire anaia zaharrena Juanito aitaxi-amatxekin hemen utzita». Maddik bortz urte zituenean bueltatu ziren Euskal Herrira «Juanito eta aitaxi-amatxekin elkartu ginen Urda Zubiko Alkerdi auzoan, Maltzatenean». Eta bertan sortu ziren bertze sei anai-arrebak «denetaratzortzi ginen eta ni bigarrena nintzen». Hogei urterekin ezkondu zen Alfontxo Goienetxerekin eta «ezkonduz geroztik, Alkerdin eta Zugarramurdin bizitu izan naiz». Bertan osatu zuten familia «6 seme-alaba izan ditut: 4 seme eta 2 alaba. 7 biloba, eta haietatik 10 birbiloba». Bere bizitzari errepaso egiten hasita, gerra, gerraondo eta II. Mundu Gerrako garaiak ditu gogoan «gerla denboran mugari esker Zugarramurdin eta Alkerdin ez genuen larrialdirik pasatu, Frantziatik lortzen baikenituen janaria, irina, haziak, oihalak, botoiak... aunitz gauza». Gerra ondoan berriz, «giro militarra nagusitzen zen herrietan. Pobrezia, razionamendua...» baina goserik ez zuela pasatu dio. Labo-

rantzatik bizi ziren eta baratzea izan du beti, halaxe aipatu dio TTUPI-TTAPARI bere bilobak «orain dela 3 urte arte baratzean aritzen zen, bere haziak ere in, zaindu, landare osasuntsuak lortu, hauek landatu, behar bezala ontzen zirelarik fruitu eta baratzekiak bildu, hazi batzuk altxatu, eta sasoina ailegatzean berriz ere hazi horiek ere in... ziklo osoa egiten zuen landare gehienekin». Garai bateko eta gaur egungo bizimodua alderatuta «lana aunitz errextu» dela dio «lehen dena eskuz egiten zen». Gogoan du erraterako arropa garbitzera joaten zirenean «bokata egiterat gaten ginen errekarat eta gero bokata bustiarekin malda goiti. Familia haundiak ziren eta izigarritzko lanak egiten ziren etxeetan». Orain berriz «makinak badire denetarako, beharrik...».

PAKITA ERASO OLAETXEA. Elizondo (101 urte)



JAIOTEGUNA
1916ko urtarrilaren 5a.

Duela egun guti bete ditu Pakitak 101 urte, 1916ko urtarrilaren 5ean sortua baita. Hiru senideren artean, bigarrena da eta Elizondon eman du bere bizitza osoa.

BI PASIO
Familia eta musika izan dira Pakitaren bi pasioak. 1936an ezkondu zen, 20 urte zituela, Jose Mari Munarriz Elizondoko dentistarekin. Zazpi seme-alaba izan zituzten, sei neska eta mutiko bat. Haiak eman diote

TTUPI-TTAPARI amaren berri eta familia nola hazi den aipatuz hasi dira «bederatzi biloba ditu eta zortzi birbiloba, bederatzigarrena bidean da». Musikarik ez omen da falta familia elkartzenean «batzuk pianoa joz, bertzeak abesten... momentu horiek gozatu egiten ditu amak».

MUSIKARI LOTUTA
Pianoa jotzen monja batekin ikasi zuen eta orain ere batzuetan jotzen omen du «buruz dakien errepertorio bat badu eta jotzera animatzen dugu». Hamarkadetan zehar Ziga eta Elizondoko organujolea izan zen, Juanito Eraso bere anai zaha-

rrak irekitako bidea segituz «berak moldatzen zituen kantuak organorako. Afizio handia zuen. Pentsa, duela hamar urte oraindik organoa jotzen zuen Zigan». Kantuan ere aritzen zen, «sopranoa zen eta Elizondoko abesbatzarekin bidaia batzuk ere egin zituen ahal izan zutenean».

Musikak bizia ematen dio orain ere eta adi egoten da «bere bilobetako batek piano ikasketak egin ditu eta pianoa jotzen duenean, akatsen bat egiten badu arreta deitzen dio, ohar-tu egiten da». Argi dago, zehar den Pakita ehun urtez bizitzeko sekretua «musika».

**Nire txanda**

Jon ABRIL

Zaharrak

Trasteak dira zaharrak, pertsonak adinekoak dira», erakutsi zidan, aspaldian, norbaitek. Zahar gisa tratatzen ditugu adinekoak, ia beti. Gaztetasuna balio bat da, eta esperientzia gazteak lan-mundutik baztertzeko baino ez dugu erabiltzen. Ederra paradoxa!

Jakituria ederra eta handia dugu adineko pertsonengan. Galzorian den mundu baten azken katebegia dira. Zenbat ikasten ahal dugun adinekoek egiteko moduak berriz ere hartu eta gurera ekarzen baditugu, euren jakituriatik edan. Egiazko berrikuntza soziala da hori. Baina, gehienetan, nahigo dugu dena jakinen bagenu bezala jokatu, eta adinekoen iritziak kontuan ez hartu.

Gizarte justuagoa eginen dugu belaunaldien arteko harremanak sustatzen baditugu, ez bakarrik haurrak aitatxi-amatxiek (horiek ere bai, jakina!), adin tarte guztietako pertsonen artekoak baizik. Solasean paratu, esperientziak trukatu, elkarrekin lan egin. Badugu denok elkarrengandik zer ikasi eta. Horixe 2017rako nire buruari paratu diodan erronka. Gazteago zein zaharragoekin ere esperientziak partekatzea.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Eguberrietako biribilgunea

Eguberrietan inoiz baino garbiago somatzen dugu bizitzaren errotondan murgilduak gaudela: Olentzerok urte berriko Erregeei bidea eman die, eta hauek inauteriei; Aste Santua etorriko da gero, herrietako bestek txanda hartzeko... oporrak, lanerako buelta eta udazken sasoiaren ondotik, berriro ere Gabonetan biribilguneari buelta eman izanen diogu eta segi dezagula biraka!

NabarmentzekoakPili MINDEGIA
Zilarrezko Titarea

Santa Luzia eguneko Zilarrezko Titarea jaso zuen Doneztebeko Etxegorriko alabak. 37 urte daramazki segidan jostun lanetan eta azken urteetan baita Berako Kotoi dendan ere.

Maika ARIZTEGI
Emakume Aizkolarien Kopa

Santo Tomas egunean Donostian burutu zen Emakume Aizkolarien I. Urrezko Kopan nagusitu zen iturendarra. Koxkor biltzen, ingude altxatzen, korrika... eta orain aizkoran ere nagusi.

Iñigo MARTINEZ
Bankoa-DV txapeldun

Txapelketa bi kategoriatan (promesa eta senior, bi urtez) irabazi duen pilotari bakarra da Berakoa. Profesionaletan debuta ere egin berri du, Ander Errandonea herriararekin batera.

Atzera begira → 2007-I-04 TTIPI-TTAPA 437 zk.**Lehenago, oraingo eta betiko Baztani buruzko bi liburu**

Baztanen idatzi eta Baztango historia, ohitura eta pertsonaiei buruzko bi liburu-ekin ongietorria eman genion 2007. urteari. Lander Santamaria kazetariak, Juan Mari Ondikol argazkilaria irudiekin *Las cuatro estaciones en el Valle de Baztan (y alrededores)* argitaratu zuen bat eta Pedro Mari Esarte Muniain historialari eta idazle ezagunak, berriz, *Como vivían los baztaneses en el siglo XVI*. Esartek aipatu zigunez, «dokumentuek balioa izan dezaten, lurraldea dominatzen duenaren hizkuntzan idatzi behar dira, gazteleaz. Hori tragedia da! Eta hau horrela izanik, euskara oraindik bizirik mantentzea, hori miraria da!».

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus



Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Trump eta Trump

Pello APEZETXEA

Hau da azkenaldian komunikabideetan gehien errepikatu den izena. Eta ez da harritzekoa. Bera baita Estatu Batuetako buruzagi berria, bera munduko estatu indartsueneko zuzendari nagusia. Eta bera, horregatik, gure planetaren egoeran eragin nabarmenena izaten ahal duen gizona.

Estatu indartsueneko zuzendaria dela erran dut. Estatu indartsuena, bai, aberatsena ere badelako. Bere ekonomia ahultzen bada, bertze estatueta-ko ekonomiak beheti egiten du. Baina Estatu Batuen arduradun bihurtzeko, diruaren bultzada ere beharrezko du hautagaiak. Bere diru pertsonalaren laguntza, baina gehiago bere talde politikoa-ren sosaren indarra; eta, zer erranik ez, industria eta finantza nagusien eragina. Industria eta finantza nagusiek erabakitzen baitute beren onerako nor den hautagai egokiena.

Desbideratuta ote nabilen pentsatzen ahal dut, idatzitakoa ikusita. Izan ere, zu!, agintariak ez dira bada herritarren bizi egoera egokia lortzeko eta zaintzeko? Herritar gehienak, ordea, ez dira finantza eta industria buruak, ez dute horietan eragin handirik. Biztanle pasiboak? Horixe, beharbada, zerba-it erran behar eta, gehien-ena izaera.

Baina, herritarrak boto emaille bederen badirela aitortu beharko dugu. Eta botoak erabakitzen ahal duela buruzagiak hautatzea. Hala ote, ordea? Herritar gehienek botoa ez da dirudun jendeek eta taldeek pentsatua eta bulkatua? Herritar bakoitzak badu aukera hautagai egokiak nor diren jakiteko eta haien alde egiteko? Edota bertze batzuen erranaren arabera jokatzeko dute, hain zuzen ere, dirudunen eta agintedunen komunikabideen arabera?

Trump diruak hautatua da, diruari laguntzeko. Beharrean daudenean, ezinean dabilzanek, banaz bertze, lehengoan jarraitu beharko dute. Beharbada, haien antzeko gehiago izanen dituzte, hori bai. Batzuen diru pilatzeak bertze batzuen eskatea eskatzen baitu. Hau aspalditik erran eta erakutsia da. Hainbat jenderen artean, lehenengo kristau mendeetako Aita Apostolu deitutakoek idatzia. Aditu bai, baina zenbat herritarrek aintzat hartzen du horrelako pentsamolderik?

«Trump diruak hautatua da, diruari laguntzeko. Beharrean daudenean, ezinean dabilzanek, banaz bertze, lehengoan jarraitu beharko dute. Beharbada, haien antzeko gehiago izanen dituzte, hori bai. Batzuen diru pilatzeak bertze batzuen eskatea eskatzen baitu»

Gerra egoeran

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Egun batean, ez dakit nola eta zergatik, baina, batean, nire burua lur eremu luze, zabal eta latz batean topatu nuen. Lautada ikaragarri handia zen; zelai-zelaia. Dena lehor eta agorra. Zuhaitzik ez zen ikusten, hurbil behintzat. Zoruan lurra, harriak eta hondarra, hezetan izpirik gabe. Harrituta eta lekuz kanpo sentitu nintzen egoera arraro hartan. Urruti-urrutian pertsona batzuk mugitzen ikusten hasi nintzela iruditu zitzaidan. Halaxe zen, bai, pertsona beltz-beltzak ziren, gazteak, gehienak gizonezkoak, gihartsu eta bizkorak.

Ez zegoen zalantzarik, ez; ez dakit nola eta zergatik, baina Afrikako herrialderen batean egon behar nuen, dudarik gabe. Pertsona haiek, gero eta hurbilago ikusten hasi nintzen; niregana zetozen ziztu bizian, zalapartaka, tiroka eta burrunbaka. Berehala, borrokan ari zirela konturatu nintzen. Bi talde handiren arteko gudu baten antzekoa zen. Eskuetan harriak, makilak, lantzak, fusilak, metriletak eta antzeko armak zerabiltzaten. Ni izututa nengoen; paralizatua. Ez nekien nola erreakzionatu.

Dagoeneko, niregandik oso gertu zeuden. Zalapartak, oihuak, ahotsak, garrasiak eta iskanbilak ikaragarriak ziren. Dardarka ari nintzen; zer gertatzen zen ez nuen ulertzen. Beldurrak airean sentitzen nintzen.

Halako batean, nola eta zergatik ez dakit, baina neronen burua lurrean ikusi nuen; gorputz osoa etzanda, hildakoarena eginen banu bazala. Zer gertatzen zen ikusteko, burua mugitzen eta altxatzen ere ez nitzen ausartzen. Etsita nengoen. Banekien edozein momentutan, kolpe txar edo balakadaren bat jaso ahal nuela.

Jendetza trumilka neukan inguruan. Gurrpil-aulkia aldamenean, baina ez zen motorduna, baizik eta eskukoa; hortaz, nik ezin inora ihes handik. Eta ni lurrean nentzan. Nire aurrean zauritutako emakume bat ikusi nuen, nirea bezalako beste gurrpil-aulki batean, niri begira. Orduan, supituan, ohartu nintzen ez nekiela beraien hizkuntza; beraien kultura ere ez nuen ulertzen; beraien arteko gerra ere ez nuen konprenitzen. Ni han, lurrean, bakar-bakarrik, beste gizarte batean, inorekin komunikatu ezinda. Nahita ere ezin mugituta.

Nire aurrean eta inguruan, pertsona batzuk nituen niri begira eta hizketan, baina ez nien deus ere ulertzen; ezin nien deus ere jakinarazi. Keinuka eta imintzioka ere, komunikazioa ezinezkoa gertatzen zitzaidan egoera larri hartan, lurrean etzanda. Nahi eta ezin.

Ez nekien zer gerta ote zitekeen une batetik bestera; nola hartuko ote ninduten; Gainezka eginda nengoen; beldurrak akabatzen. Egoera horretan, pertsonak gure ingurutik aterata, gure gizartetik eramanda, zer gutxi garen ohartu nintzen; zeinen babesgabeak sentitzen garen. Ezdeusa sumatzen nuen neronen burua. Baliarik gabea. Funtsik gabekoa. Ausardia gabetik. Hutsaren parekoa... Estutasun hartan, bat-batean esnatu eta berehala konturatu nintzen dena amesgaizto bat izan zela; gaizto-gaiztoa! Amets oso-oso txarra. Eta segituan, burura etorri zitzaidan gerretatik iheska doazen pertsona errefusiatu eta iheslari guztien sufrimenduaren irudia.

Prentsatik bildutakoak

«Duela zortzi bat urte, krisiarekin, diru-laguntzak murriztu egin ziren. Orain dirua irabazten den arren, zaila da hortik bizitzea: batzuk lanean ari dira, besteak ikasten... apur bat kobratzen dugu, baina zaila da hortik bizitzea. Hala ere, sos batzuk kobratzen ditugu gus-tuko dugun kirola egi-teagatik eta biak uztarterik badugu, aurrera».

Josetxo EZKURRA II
Doneztebeko erremontelaria
ARGIA 2016.11.29



«Goizez Herriko Etxean egoten naiz bileraren batean eta arratsaldean entrenatzeko edo bizikletan ibiltzeko astia hartzen saiatzen naiz. Nik ez dut nere burua politikotzat, azkenean gurea bezalako herri tiki batean politika aunitzik ez baituzu egiten. Ideia batzuk badituz, alkate izan edo ez, izanen ditudanak eta ez dut arazorik horiek agertzeko».

Xanti UTERGA
Doneztebeko erremontelaria
D.NOTICIAS 2016.12.26

11 galdera labur**Nor dugu Jesika Eskudero?**

Erantsungo neska alai eta saltsera.

Zein afizio dituzu?

Bidaiatzea asko gustatzen zait, Italia guztia zeharkatu nahi nuke eta musikazalea ere banaiz.

Eratsungo mozorro guztiak zuk makillatzen dituzu?

Bat edo beste beti etortzen zait. Hori da nere saltsa...

Nola bizi dituzu inauteriak?

Inauteriak asko gustatzen zaizkit, herriko guztiak juntatzen garenean bakarretakoa da eta polita izaten da.

Zein da Eratsungo inauterien berezi-tasuna?

Bazkalduta eta gero karrika buelta egiten da bertsolariekin eta etxe bakoitzean bertakoekin zerikusia duten bertsoak botatzen dituzte. Eta gero afalondoa, mahai inguruan kantatzen aritzea.

Nola osatzen duzu mozorroa?

Parteren bat erosten dut baina neronek etxean egitea gustatzen zait.

Aurpegia agerian edo estalita?

Normalean agerian, baina makillajearekin saiatzen naiz zerbait egiten.

Orain arteko mozorrorik gustukoena?

Beyonce abeslariak jantzi ginenekoa. Sumoko jantziak jarri genituen

azpitik, Single ladys bideoklipa imitatzen ibili ginen. Dibertigarria izan zen eta jantzi beroa zen, negurako aproposa.

Lehenbiziko inauteriak izaten dira Eratsungoak, gero nora?

Normalean Doneztebe eta Leitza-koetara joaten gara..

Eratsungo gustuko tokia?

Herriko plaza, bertan elkartzeko garelako denok eta Iruñarria ere bati Eratsungo bista ederrenak bertan daude..

Amets bat?

Egunen batean estetikatik bizi ahal izatea, ea betetzen den.



Jesika ESKUDERO BALEZTENA → Eratsungo gaztea

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

sarobe®
gozotegia okindegia
pº de eztegarra 25 bajo
31780 berá (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK - ETXETRESNAK
BORTZIRI
UNSION ANAIK
Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
ola
TXOTX DENBORALDIAREN
IREKIERA:
URTARRILAK 22
SAGARDOTEGIA
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
Meaka auzoa z/g · 20304 IRUN · T. 943 623 130
www.olasagardotegia.eus

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

GIZARTEA → ESKUALDEKO PLATAFORMAREN AURKEZPENA ABENDUAREN 14AN EGIN ZUTEN DONEZTEBEN

Preso eta iheslariak etxera bidean jarri nahi dituzte langileek Ireki-rekin

Eskualde osoan sinadurak bilduko dituzte lantegiz lantegi

Aitor AROTZENA

Joan den urriaren 15ean Ireki plataformaren aurkezpena egin zen Donostian. Lanketa honen helburua da, langileri mugimendutik, Euskal Herriak frantziar eta espainiar estatuekin konpontzeke dauden aferei bultzada ematea, zehazki Euskal Preso Politikoen inguruan. Eskualdeko taldearen aurkezpena abenduaren 14an egin zuten Donezteben.

Aurkezpenean aipatu zuten, «euskal langileriak, beuren ordezkariekin, herri honen historian eta egoera zailtan, konpromisoa eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Ekaina bitarte sinadurak bilduko dituzte lantegiz lantegi, Ireki ekimenaren baitan.

arduraz ekin izan du arazo desberdinen aitzinean. Euskal preso eta iheslariekin ere arduraz jokatu behar dugula uste dugu, bertze zereginen artean, gatazka konpontzeko bere biziko ekarpena egiteko potentzialitatea dagoelako».

Horregatik, langileri mugimenduko militanteek, lanketa serioa egi-

teko konpromisoa hartu dute, «herri honek elkarbizitzan behar den bezala ekiteko eragozpen nagusia konpontzeko bidean jartzen. Hemen aurkezten dugun ekimenari, ateak ireki, bideak ireki, ireki deitzen diogu».

Lanketa hau egiteko arrazoi franko badirela uste dute, baina bi azpi-

marratu zituzten: «Nahikoa da. Alde batek konponbideko jarrera duenean bertzeak erpresio eta mendeku jarrerara bertzerik ez izatea, onargaitza da. Langile mugimenduan badago potentzialitatea eragiteko: Goazen aktibatzerara indar hau, gatazka konpontzeko bidean eta elkarbizitzako jarreran».

Ekimen hau lan munduan burutuko dute, lantegiz-lantegi, arloz-arlo, Baztan-Bidasoaldeko eskualde guztian, sinaduren bidez atxikimenduak pilatuz. Ekimen honen gakoa Ireki da: «Ireki espetxe eta ziegetako ateak; Ireki iheslarien euren herri-ratzeko bideak; Ireki errepresioa eta mendekua gainditzeko bidea, eta azken finean; Ireki gatazka konpontzeko bidea». Irudia berriz, Giltzarrapoa izanen da.

Ekimenak ekainaren 17ra arte iraunen du. Erronka potoloa hartzen dute beraien esku, Euskal Herriari 150.000 atxikimendu lortzeko helburuekin, «eta atxikimendu hoiek eragile sindikal, politikoa eta preso eta iheslarien aldeko eragileen esku jarriko ditugu, behar den arduraz, kudeaketa egin dezaten».

LAU ORDUKO GELDIALDIA

Lan hitzarmen duinaren alde mobilizatu dira Legasan

TTIPI-TTAPA

Legasako Arcelor Mittal lantegiko langileek lau orduko lan uztea egin zuten abenduaren 13an, «lan hitzarmen duin baten alde».

Bere garaian hartu zuten konpromisoak betetzea eskatu diote enpresari. Hain zuzen, LAB sindikatuaren arabera, «enpresak errazenez, langile gehiagoren beharra izanez gero, duela urte batzuk

krisiaren eraginez kaleratutako langileak izanen ziren sartzan lehenbizikoak. Baina orain, errelebo-kontratua ezarri behar dela dirudienan, langile horiei ez zaie inolako lehentasunik ematen».

Legasako langileek «hartutako konpromisoak betetzea» nahi dute eta aldaketarik ez bada, mobilizazioekin segituko dutela iragarri dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Legasako Arcelor Mittaleko langileak, lantegi atarian egindako elkarretaratzean.

BERA

GIZARTEA → ABENDUAREN 19AN JASO ZUEN ZIURTAGIRIA ESKOLA PUBLIKOAK

Kalitatearekin konpromisoa ziurtatu du Ricardo Barojak

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako 21 ikastetxeri eman die

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuak kalitatearen kudeaketa sistemak ezarri dituzten Nafarroako 21 ikastetxereri ziurtagiriak banatu dizkiete abenduaren 19an Nafarroako Jauregiko Tro-nuean Aretoan.

Horien artean, 2015-16 ikasturtean Kalitatearekin Konpromisoa zigilua lortu du Berako Ricardo Baroja eskola publikoak

Zinegotzi aldaketa

EH Bilduko Jose Manuel Portu Berasategi zinegotziak karguari uko egin zion abenduko udal batzarrean, «arrazoi personalengatik». Udalajakinaren ganean gelditu eta udalean egingadako zerbitzuak esker-tu dizkio ahobatez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua elizan

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako ikasleek Eguberrietako kontzertua eskaini zuten abenduaren 21ean San Esteban elizan. Urtero Kultur Etxean egiten zuten emanaldia, baina aditzera hurbiltzen zen jende guztiarentzat lekua ttikia gelditu zela eta elizan jo dute oraingoan eta hau ere gainezka bete dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

50 urtez Olentzerori kantari

Olentzeroko kalejiran kantari mende erdia bete duela eta omenaldia eskaini zioten ezustean Jose Mari Telletxeari. Patxi Castillok bertsoa kantatu zion.

FLASH

Labiaga ikastolako ikasleak ondarea QR-tuz

Nafarroako Ikastolen Elkarteak Gure Ondarea QR-tuz proiektu pedagogiko kulturala bultzatu du, Nafarroako ondarea ezagutu eta baloratzen hasteko helburuarekin. Zehazki, Labiagako LHko 6. eta DBHko 1. mailako ikasleek Udalletxea, Itzea etxea, Kar-naxenea etxea, San Migel zubia eta Zelaia baserria katalogatu dituzte.

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako emanaldiak

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako urtar-rilean ere hainbat emantzunaldi antolatu ditu. Hilaren 23an gitarra entzunaldia izanen da, 24an haize-instrumentuena, 30ean txistuarena eta 31n perkusioarena. Emanaldi guztiak 18:00etan Musika Eskolan.

Magia ikuskizuna

Sun magoak Spectacular magic magia ikuskizuna euskaraz eskainiko du urtarrilaren 22an, igandean 17:00etan Kultur Etxean. Sarrera: 5 euro.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLP: 948 625 474

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA
948 631 218
kateabera@telefonica.net
MAG ORBEA CONDA SCOTT LOOK

ERREKALDE
OSTAJUA
PLATER KONBINAUA
PINTXOAK
BOKATOK
TFNOA: 948 630 259
BERA

KIROLA → URTARRILAREN 14AN

X. Mendi Egunean herri afaria ere eginen dute

‘Biziminez’ dokumentala eskainiko dute Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, urtarrilak 14, Mendi Egunaren hamargarren edizioa egingen da. Bertan, Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi omenduko dituzte, 2007ko urtarrilaren 13an Taillon mendian hildako mendizaleak. Beraz, Mendi Egunaren bezperan hamar urte beteko dira istripuz. Aipatzekoa da larubateko ekitaldietara etortzekoak direla Edurne Pasaban eta Asier Izagirre mendigoizaleak eta egun beltz hartan Taillongo horma berean zeuden Josune Bereziartu eta Rikar Otegi ere beharbada etorriko dira.

Larun Mendi Taldeak eta Manttale Mendi Lasterketa taldeak pres-tatutako egitaraua larunbat goizeko 10etan hasiko da Toki Ona kiroldegian, haurrentzako eta gazteentzako zuzenduta dagoen eskalada tailer batekin.

14:15ean Rikardo Baroja Eskolako aterpetan, Santa Barbarako mendi irteeran eta binakako kronoeskala-

dan parte hartzeko izen emateak irekiko dira. Bai kronoeskalada baita txangoa ere kiroldegiko ataritik abiatuko dira, Santa Barbarako gainetik pasa eta abiapuntura iritsiko dira 5 kilometro eta erdiko ibilbidea burutuz.

Ibilaldia 15:00etan hasiko da eta kronoigoera 15:30ean. 15:00etan 12 urte artekoentzatzat lasterketa ere egingen da.

Kronoigoera, partaide guztientzat irekita dago, baina 16 urte baino gutxiago daukatene heldu batekin egin beharko dute ibilbidea nahitaez. Ibilaldia eta kronoigoera bukatzerakoan Rikardo Baroja eskolan berendua izanen da. Eta honen ondoren sarien zozketa egingen da partaide guztien artean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ander Errandonea eta Iñigo Martinezek profesionaletan debuta

Gaur egun ez da xamurra esku pilotan profesionaletan debuta egitea. Aldi honetan, ordea, herriko bi pilotari gaztek batera egin dute profesionaletarako saltoa. Ander Errandonea aurrelariak eta Iñigo Martinez atzelariak Asperekin bi urterako kontratua sinatu eta estreineko partida urtarrilaren 2an jokatzekoa zuten Tolosako Beotibar pilotalekuan. Errandoneak Tolosa izan behar zuen lagun gibebeleko koadroetan eta Martinezek Retegi Bi izan zuen aitzinean. Bata nahiz bertzea ilusioz gainezka ageri dira bere lehen kontratu profesionala sinatu ondotik. Errandonearen zat profesionaletan hastea «urrats handia da, baina behin horrat ailegatuta, oraindik gehiago hobetu behar dugu». Martinez ere iritzi beretsukoa da, «eman diguten aukera aprobetxatu beharra daukagu eta kategoria berrira lehenbailehen egokitu, urrats tikiak ematen hasteko».

DOKUMENTALA ETA HERRI AFARIA

18:30ean Kultur Etxean, Pablo Dendaluzek zuzendu eta Josu Iztueta eta Antton Arza protagonista dituen *Biziminez* dokumentalaren proiektzioa egingen da. Kultur Etxerako sarrera 2 edo 3 eurotan jarriko da eta biltzen den dirua Bortzirietako Guztiok elkartearantzat izanen dira.

Aurtengo berrikun-

Ba al zenekien

Aitziber Almandoz aranztarraren ‘Su galduaren bila’ ipuinaren aurkezpena urtarrilaren 20an, ortziralean 18:00etan egingen dela Beralandetan

tza nagusia, 20:30ean Altzateko frontoian antolatutako afari herrikoia izanen da. Musika eta opariak ere izanen dira afal ondoan. Afarirako txartelak Errekalde, Xuga, Pikabea harategia, Agara Prentsa eta Lesakako Arrano ostatu-

an salgai daude, 10 eurotan.

Biharamunean ere segida izanen du Mendiaren Egunak. Urtarrilaren 15ean, igande goizeko 9etan mendi irteera eta kedada Trail egin baitute: Agerra-Ibardin (pintxopote)-Agerra.

xirgil
Jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

Manterola
Tekniko instalatzailea
**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Goieko INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure ingurua klase guztietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

LESAKA

GIZARTEA → LHKO 6. ETA DBHKO 1. MAILAKOEK

Gure ondarea QR-tu dute ikastolako ikasleek

Aita Donostiari eskainitako eskultura Agiñan, Bordienea, Onin erreka inguruko etxeak, San Martin eliza eta Zabaleta dorrea

arkitektoniko edo paisaia-elementu berezi (75 Nafarroa osoan) aukuratu dituzte eta hauen deskribapen idatzia eta ahozkoa prestatu dute hizkuntza ezberdinetan. Ondoren, QR formatura bihurtu eta publiko osoari eskaini zaio. Surtutako QR zerrenda triptikoen bidez banatu dute eta abenduko lehen asteetan QR horiek itxekitzen aritu dira aukuratutako eraikin eta elementuetan.

Zehazki, Tantirumairu ikastolako ikasleek Oteizak Agiñan jarri zuten Aita Donostiaren eskultura, Bordienea etxea, Onin erreka inguruko etxeak, Tourseko San Martin eliza eta Zabaleta dorrea katalogatu dituzte. Proiektu honek Príncipe de Viana erakundearen babesa jaso du.

Aitor AROTZENA

Nafarroako Ikastolen Elkarteak *Gure Ondarea QR-tuz* proiektu pedagogiko kulturala bul-tzatu du, Nafarroako ondarea ezagutu eta baloratzen hasteko helburuarekin. LHko seigarren mailako eta DBHko lehen mailako ikasleek beren herri edo bailara-ko zenbait eraikuntza



ARGAZKIA: A. AROTZENA

20 Olentzero eta 4 Jaiotza lehiaketara

Olentzero eta jaiotza lehiaketan 24 taldek hartu zuten parte: 4 jaiotza lehiaketan eta 20 olentzero lehiaketan. Lehiaketa nagusian, *Errekakuk* taldeak irabazi zuen 300 euroko sari nagusia eta arratsaldean musika bandarekin kalejiran ateratzeko eskubidea. Lesakako Zerbitzuen elkarteak hobekien kantatzen duen Olentzeroari emandako saria ere jaso zuen talde berak, *Azkanarrua* taldearekin batera. 11-15 urteko kategorian, *Muttikak* taldeak jaso zuen lehen saria eta gainera, jaiotza lehiaketan ere talde bera izan zen garaile, hobekien kantatzen duen taldeari emandako saria eskuratzeaz gain. 10 urte arteko kategorian, *Beti Gazte irabazle* izan zen garaile. Bertze Olentzero batzuk ere karriz karriz ibili ziren lehiak kanpo eta presoekin elkartasun olentzeroa eta Tantirumairu ikastolarena, Nafarroa Oinez ospakizuna gogoratuz, atera ziren jaialdian.



ARGAZKIA: UTZITAKOIA

Etxabe, Abarkas eta Zelaieta garaile Bortzrietako taldekakoan

Bortzrietako bertso eskolak 18. aldiz antolatutako duen Taldekako bertso lehiaketan 24 bertsolari aritu dira aurten. Lehen aldiz, banaka sailkapena jokatu behar izan dute Beran eta gero, lau hirukote osatu eta finalerdiak eta finalak izan dituzte herrian. Abarkas bizkaitarra, Joxe Juan Zubieta *Etxabe* lesakarra eta Julen Zelaieta beratarra suertatu dira garaile, Arranon jokaturako finalean Kotte Plaza eta Xabi Maia baztandarrei eta Antton Fernandez gipuzkoarri nagusituta. Xabi Maiak lortu zuen bertso onenari emandako Kotto Saria.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarrilaren 13an
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattogorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 17AN ETA 22AN

Eguberrietako ospakizunen ondotik San Anton eguna dator

Ondoko igandean izanen da erromeria Endara auzoan

Aitor AROTZENA

Urtarrilaren 17a. San Anton Eguna. Abeltzainen zaindaria. Egun horretan, ohiturari eutsiz, meza izanen da Endara auzoko San Anton basilizan, baina beti bezala, ondoko igandean izanen da erromeria handia. Honela, urtarri-

laren 22an, igande goizean mezak izanen dira orduero eta trikitixa doinuak, errozkila saltzaileak eta bertze hainbat kontu izanen dira. Lesakatik eta Bortzrietako eta Gipuzkoaldeko auzo herrietatik oinez, bizikletaz, zaldiz eta, batez ere, autoz hurbiltzeko ohitura handia izaten da. Lesakatik, mendi ibilaldia antolatu du Beti Gazte elkarteak 08:00etan plazatik abiatuta. Arratsaldean dantzaldia izanen da Plaza Zaharrean.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Eguberrietako saskia eman du Tantirumairu dantza taldeak

Urtero bezala, Eguberrietako saskia osatu du aurrean ere Tantirumairu euskal folklore taldeak. Joxe Mitxelena eta Txelo Aldaraborda senar-emazteak suertatu dira saridun, dantza taldeko kide den Aitor Mitxelena Sunsundegi bilobak saldutako boletoarekin.

Artea Oinez

Urriaren 15ean Nafarroa Oinez ospatuko da Lesakan, baina urte osoan jarduerak izanen dituzte. Bertzeak bertze, maiatzean Lesakan eginen den *Artea Oinez* arte erakusketa girotzeko eta haurren motibazioa lortzeko, urtean zehar jarduera desberdinak burutuko dira, Tan-

Ba al zenekien

Nafarroa Oinezeko jardueren baitan, otsailaren 11n tobera tailerra Oartzungo Arditurrin eta *Trabajadoriak* bertso trama eta afaria Arritxulon eginen dituztela. Hurrengo alean berri zehatzagoa.

tirumairu ikastolak antolatuta. Hiruhileko bakoitzean, artista batzuk oinarri hartuta, jarduerak desberdin bat burutuko dute Artea Oinez

taldekoek. Abenduaren 21ean, LHko 5. eta 6. mailako ikasleek eskultura landu zuten kontentuan burututako lehen tailerrean.



muebles
ORDOKI
altzariak

%50 arteko
DESKONTUAK

info@mueblesordoki.com
www.mueblesordoki.com
Bittiria kalea, 28 Lesaka
948 63 77 80

ETXALAR

GIZARTEA → 2017. URTEARI DAGOKIONA

Mendi lizentzia egiteko aukera eskaintzen du Altxatak

Norberak bere kabuz internet bidez egiteko aukera ere bada

Irene ELIZAGOIEN

2017ko mendiko lizentzia egiteko modalitate desberdinak daudenez, bakoitza zein modalitatetan sartuko litzatekeen begiratu behar da eta prezioa kontuan hartu. Altxatak kide den Edurnerekin harremanetan jarriz gero berak tramitatuko du, baina lehenengo aldia bada Nortasun Agiriaren fotokopia beharrezkoa da. Larraburuan zerrenda bat egon da izena eman nahi duenarentzat. Zalantzak argitu eta kontsultak egiteko 677031920 telefonora deitu (Eduerne).

Etxalarko Sute Elkarte

Sute elkarteak urtarilaren 22an Kultur etxe-

an ohiko batzar orokorra egingen du. Lehenengo deialdia goizeko 9:30etan izanen da eta bigarrena 10:00etan izanen da.

Janari bilketa

Lehenengo urtean bezala aurten ere Elizako juntak antolatuta janari bilketa burutu da Etxalarren. 1.100 kilo inguru bildu dira; agian kiloz lehenengo urtean baino gutxiago baina balioz janari garestiagoak bildu dira. Abenduaren 16an eraman zuten bildutakoa Iruñera. Aurtengoan kamioi bat arduratu da janaria eramateaz eta honen gastua parrokiak bere gain hartu du.

Haur Txokorik ez

Bi haurrek bakarrik eman zuten izena Eguerberrietako haur txokorako eta horrenbertez aurten ez da haur txokorik izan.



ARGAZKIA: AIMAR IPARRAGIRRE

Azkeneko urteetan baino Olentzero gehiago izan dira aurtengoan

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, arratsaldean herriari itzulita eman zitzaioan 5 olentzeroen irudi, txistulari eta trikitilariekin. Olentzero bizidunak eta Mari Domingik ere bisita egin zuten azken urteetan bezala. Meza ondotik jende aunitz hurbildu zen frontoira, herriko musikarien saioa ikusi eta pintxoak janez eguberri giroaz gozatzera.



ARGAZKIA: REBECA ARANZADI

D'zanp bilkura

Abenduaren 17 eta 18an D'zanp bilkura ospatu zen Bilbon. Ez zuten hutsik egin Rebeca dantza akademiako Doneztebe, Bera eta Etxalarko ikasleek. 14 ordu inguru pasa zituzten dantzan eta esperientzia polita bititu zuten. Argazkian ageri dira Etxalarko hiru parte hartzaileak (Ane, Daniela eta Amaiori).

Ba al zenekien

Mireia Martinez Etxalartarrak berak sortutako Mari Domingi gona gorria ipuina kontatu zuela abenduaren 22an Kultur Etxean.



USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214
ETXALAR

- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

ETXEZ ETXEKO BANAKETA

ALBERTO RETEGI

abokatua
abokatua
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

ORBELA
SENDERISMA ALBERGUESA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com

www.orbela-beintza.com



UTZITAKO ARGAZKIA

Arantza eta Berako eskolako ordezkariak ziurtagiriarekin.

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Inauteriak otsailaren 9tik 11ra izanen dira

Mozorroak guztia antolatzen ari dira

Nerea ALTZURI

Eguberrietako datak pasatuta, urte berriko kontuekin aintzinerara goazi. Eguberrien ondotik, lehenxeago edo geroxeago, inauteriak izaten dira. Mozorro xuriak, urtero inauteriak antolatzen dituztenak, dagoeneko egitaraua lotzen ari dira.

Otsailaren 9,10 eta 11n izanen dira aurtengoak. Xehetasun guztiak, hurrengo alean emanen dizkizuegu.

Kalitatearekin Konpromisoa zigilua

Arantzako Herri Eskolak, ikasturte honetan, Kalitatearekin Konpromisoa zigilua erdietsi du. Nafarroako zenbait ikastetxetan bezalaxe, eskolan, kalitatea-

ren kudeaketa sistema ezarria dute eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza departamentuak, eskolako lana errekonozitu du.

Joan den abenduaren 19an, jaso zuten ziurtagiria Nafarroako Jauregiko Tronuaren aretoan, ziurtagiriaren banaketa izan zen.

Jangela

Eskolako Guraso elkarteak, zeregin ezberdinak ditu urtean zehar. Tartean da, jangelaren antolaketa eta kudeaketa. Ikasturte hasieratik, seme-alaben heziketan jangelak duen garrantziaz jabeturik, harrera ezin hobea izan duten bi ekimen berri abian jarri dituzte:

Alde batetik, janariaren hobekuntzak proposatu dituzte, ohitura osasuntsuak irakatsiz. Garaian garaiko eta bertako barazkiak, astean bitan arrain frexkoa, harragi ekologikoa, esneki frexkoak, oliba olio...



ARGAZKIAK: G. PIKABEA

Eguberriak giro ederrean joan dira

Eguberrietako ekimenak izan ziren... Eguberri bezperan, kalejira gabon kantak kantatuz, Belauntxingua dantza, merendua...izan ziren.

mantendu edota gehitu dituzte, menua hila-betero ikuskatuz. Bertetik, haurrek, lagunekin eta jangelako langileekin errespetuz joka dezaten, jangelako bizikidetasuna bulkatzen lagunduko duten urratsak landu dituzte. Marrazkiekin osaturiko dekalogoia prestatu dute, jangelako arauak zein diren azalduz.

Gurasoek, seme-alaben jarreraren berri ja-

Ba al zenekien

Durangoko azokan aurkezturiko Basker 1960ko hamarkadako euskal kulturari buruzko suediar dokumentalean, herriko irudiak ageri direla.

sotzen dute hamabortzero, ohar baten bitartez eta ondotik, idatzi hori, gurasoek sinututa, itzuli behar da.

Adin ezberdinetako haurren arteko harreman positiboa eta elkar laguntza indartzeko asmoz, mahai bakoitzean

ttikiak eta koxkorrek, jartzen dira eta ardura batzuk ematen zaizkie.

Guraso Elkarteak, egitasmo hau aitzinera eramaten laguntzen ari diren guztiak, eskertu nahi ditu (sukaldaria, zaintzaileak, guraso bolondresak...).



ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK

Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587

Irungo errep. BERA

www.antzuzelai.com

info@antzuzelai.com



Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

IGANTZI

GIZARTEA → URTARRILETIK AITZINERA

Liburutegi zerbitzua martxan jarri dute Barazarrean

Asteazkenero
16:30etik
19:30era
irekitzen du herritar talde batek

TTIPI-TTAPA

Urtarriletik aitzinera, Igantzin liburutegi zerbitzua martxan jarri du herritar talde batek. Barazarrean, kontsulta gainean jarri dituzte liburuak (ingelesez eta frantsesez ere badira), al-

dizkariak, filmak... mailleguan hartzeko aukera izanen dute herritar guztiak asteazkenetan, 16:30etik 19:30era.

Liburu aukera zabalak dute eta horien artean, baita euskaraz argitaratutako azken nobeldadeak, Toti Martinez de Lezea, Jon Arretxe edo Donna Leon bezalako idazleen azken lanak, bertzeak bertze. Liburutegiko zerbitzuaz gain, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleek eskolako lanak bertan egiteko aukera ere izanen



UTZITAKO ARGAZKIA

Irisarriko txondorak 10.000 kilo ikatz emanen ditu

2014an Iñaki Perurenak eta 2015ean Euzkitzek egin zuten bezala, 2016ko Eguberriak baino lehen Xabier Agote, Albaola Elkarte zuzendariak piztu zuen Irisarriko txondorra. Elkartearen lana hartu nahi izan zuten aintzat, itsasoko euskal ondarea sustatu eta bultzatzeagatik. Aspaldian ari dira San Joan baleontziaren erreplika bat egiten Pasaiaiko portuan. Irisarriko basoetako 16.000 kilo egur, gaztainondoa eta haritza, batez ere, erabili dituzte txondorra egiteko, eta egunotan 10.000 kilo ikatz ateratzeko asmoa dute arduradunek. Ikatza zati bat, bertze zati bat, berri, 3 kiloko poltsetan saltzen da. Ikatza salduz ateratzen den diru erdia Albaola Elkartearentzat eta Paris 365 Jantoki Sozialarentzat izanen da.

dute. Alde horretatik, «DBHtik pasatu diren gaztetxoek liburutegia etxean baldin badituzte eta nahi izanen gero, eraman liburutegira, orain ikasketa horiek egiten ari direnak erabili ahal izateko» eska-

tu dute. Azpimaratu dutenez, liburutegia denentzat irekia dago eta udan Arantzako lagunak igerilekuan jarrirako liburutegia erabilizuten bezala, orain ere atea irekiak izanen dituzte.

Barazarreko egoitzaz gain, La Villa ostatuan ere xoko bat jarriko dute aldizkariekin, jendea bertan dagoen bitartean irakurri eta berriro uzteko, bertze batek ere irakurtzeko aukera izan dezan.

BORTZIRIAK

KULTURA → EUSKARAZ IDATZITAKO LANAK

Inguruko egileak Iruñean sarituak

Iban Garro lesakarrak olerkietan lehen saria

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Udalak hogeita seigarren aldiz an-

tolatutako egile berriendako euskarazko literatura lehiaketako sariak banatu dituzte eta aurtengo eskualdeko zenbait egile sarituak suertatu dira.

Olerkietan, lehen saria Lesakako Iban Garro Altzurik lortu du, *Hi -*



dris-en aulkia izeneko poesia bildumarekin. Iaz bigarren saria eskuratu zuen lesakarrak eta aldi honetan, lehen saria. Bertso-paperetan,

Julio Sotok lortu du lehen saria, *Nor naiz?* bertso-xortarengatik. Bigarren saria, Berako Julen Zelaieta Iriartek lortu du, *167/1937; isil-*

tasunak itxi arazi zuen auzia lanarekin eta hirugarren saria Eneko Fernandez Maritxalar lesakarrak lortu du, *Ongi etorri, Lur!* lanarekin.

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 10EAN

Denboraldi bukaera ospatu dute Ariztigain kanpinean

Musean eta
bingoan
aritzeaz gain,
afaria eta
musika ere izan
zuten

Maider PETIRENA

Ariztigain kanpinak denboraldi bukaerako besta egin zuen abenduaren 10ean. Haurrek joko ezberdinetan parte hartzeko eta segwaiean ibiltzeko aukera izan zuten. Mus tximista txapelketan 4 bikotek parte hartu zuten eta ondorengoa izan zen sailkapena: 1. Gorka Arretxea eta Agurtzane Zubieta, 2. Alvaro Armentariz eta Bixente Ibarra, 3. Txus Rekarte eta Pattere Galtzagorri eta 4. Mikel Ibarra eta Enrike Irazoki. Tartean haurrek



ARGAZKIA: J. OTXANDORENA
Mus txapelketako saridunak.

jokoak akitu eta txokolatada eder batez gozatzeko aukera izan zuten. Ondoren bingoan jokatu zuten. Guzti honen ondotik afari eder batez gozatzeko aukera izan zen giro ezin hobean. Hauspolarari taldearen musikarekin kantuan eta dantzari ibiltzeko aukera bikaina.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA
Neska-mutikoak haurren jokoetan.



ARGAZKIAK: AMAIA ARRETXEAA, GARI AYESA ETA ENEKO HERRERA

Eguberrietako ohiko ospakizunekin akitu zen urtea

Eguberrietako ohiko ospakizunekin borobildu zuten 2016. urtea. Abenduaren 22an eskolako ikasle eta irakasleek urte bukaerako jaialdia egin zuten frontoian. Eguberri bezperan hainbat talde ibili ziren Olentzerorekin kantuan. Erdiko argazkian, neska-mutil kozkorren taldea ageri da. Eguberri egunean ere, ohi-turari utsiz baserriz baserri eta etxez etxe ibili ziren gazteak, Beñat Mitxelena akordeolaria lagun zutela. Urtezahar egun eta gauaren ondotik, Errege bezperan Errege Kabalgata dotorea ere egin zuten.

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 11N ETA 13AN

Olentzero eta Mari Domingi eskuzabal ibili dira aurtengoan

Hainbat ekintza egin dira abenduan

Marga ERDOZAIN

Olentzero eta Mari Domingi maiteak:

Zutabe hau irakurtzen duzuenean ilbeltzeko aldapan murgilduta egonen zarete, kiroldegian apuntatuta, hain beharrezkoa duzuen dieta hori hasita, pipa alde batera utzia... Beno, hori egiten duzuen bitartean, berri hauekin eskerrak eman nahi dizkizuegu abendu osoan zehar argazki zoragarriak utzi dizkizuezelako. Beraz, kronika hau esker eta bilduma kronika izanen da.

Abenduaren 2 eta 9an Udazken Literarioen azken solasaldiak izan ziren. I. Ziklo hau baloratzean aipatzen ahal da batzuetan bertze ikus-entzule kopurua 24koa izan dela. 2017ko erronka gure eskualdeko bertze hainbat idazleekin II. Zikloa antolatzeko izanen da.

Santa Luzia eguneko ospakizunek ere argazki politikak utzi zituzten. Abenduaren 11n eskulangileen elkartasun azoka jendetsua burutu zen. Erreka Guraso Elkarteak antolatutako ekimenak 1.200 euroko ekarpen polita bildu zuen minbizia duten haurren aldeko elkartei laguntzeko. Miren Amurizak ederki erakutsi zigun Mozanbiketik hizkuntzaz, historiaren baita kulturaz ikuspegi kritiko eta itxa-

ropentsuaz hausnartu behar dugula. Etxegorriko Pili Mindegia Santa Luzia eguneko protagonista bihurtu zen herriak eskainitako omenalditxo xume eta politean Zilarrezko Titarea jantzi baitzuen.

Erreka kirol elkarteak ere argazki bilduma ederra utzi du: eskubaloi talde guztien aurkezpena, munduko hiru mendizale famatuaren emanaldiak utzitako argazkia (Ezkurra pilotalekua lepo beteta egonda), mendietara igo direnak, San Silvestre koloretara eta jendetsua...

Doneztebeko Futbol Taldeak antolatutako Eguberrietako Aretofutbol txapelketak izugarriko arrakasta izan du. Hamalau talde hamar egunez nor baino nor majo lehiatu dira, eta kiroldegiko harmailetan txalo eta animoak ere ez dira falta izan.

Olentzero eta Mari Domingi, abendu honetan ere bertze hainbat opari eskertu nahi dizuegu: Eguberrietako kontzertu bikaina (Mendi Abesbatzak antolatutakoa, Donostiako Txistulari Banda eta Agorreta Musika Eskolakoekin batera), Firin-Farandula antzerki taldeak eskainitako emanaldia, Kabalgata taldeak antolatutako lantegiak, zinema emanaldiak, baita Erregeen etorrera ere...

Mila esker elkarlana, ilusioa eta gogoia talde guztiei banatzeagatik. 2017an ere horrela segitzea espero dugu.

EZAGUTU GAZTEEN MUNDUA

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811

MUEBLES TELLETXEA ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com



FLASH

Zozketen zenbaki saridunak

Erreka Kirol Elkarte-ko Eguberrietako saski handiaren (tartean 300 euroko erosketa balea, etab...) zozketako zenbaki sariduna: 7122 (Carlos Ostiz-i egokitu zaio).

Burrumba gazte taldearen zenbaki sarituak: 3. saria: eguberrietako saski bat. (0174); 2. saria: bi pertsonentzako Belarra jatetxean otordua (0741); 1. saria: Bi pertsonentzako Elgorriagako bainuetxean ibilaldia eta bazkari edo afaria (0004).

Mendaur Institutuko ikasleen zozketak: Aste Zuriari dagozkion zenbakiak: 1. saria 1092; 2. saria 1690, 3. saria 2128, 4. zenbakia 917 eta bortzgarrena 1477. DBHko 4. mailako ikasleen zozketaren zenbakia: 784.

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 17AN

San Anton eguna gogoz ospatuko dute aurten ere

Goizean meza eta luntxa ermitan

eta Herriko Ostatuan otorduak eta ilunabarrean herriko musikariek dantzaldia izanen da estalpean.

Fermin ETXEKOLONEA

Astez egokitzen da aurten San Anton eguna. Halere, ohiturari eutsiz, goizean meza izanen da ermitan, herriko hamaketakoa ateratzen du, Bittori Erasunen laguntzarekin. Soinu pixko bat ere izanen da, eguerdian Errandonean

Joaldunak han eta hemen

Eguberri bezperan joaldunek hainbat irteira egin behar izan zituzten Olentzerori eta Maridomingiri ongietorria egitera: abenduaren 23an Hondarribian 24an Iruñean ez ezik,



UTZITAKO ARGAZKIA

Urrezko Ezteiak

Abenduaren 31n Miguel Arregik eta Dolores Indakotxeak Urrezko Ezteiak ospatuko dituzte. Miguel Arregi Ezkurrako Zapatainean eta Dolores Indakotxea Zubietako Etxeberrian sortutakoak dira. Zubietan ezkondu ziren 1966ko abenduaren 31n. Lau seme izan dituzte eta gaur egun Zubietan bizi dira Ixkinean.

Bizkaia eta Gipuzkoara ere joan ziren, herrian Olentzerori harrera egiteaz gain. Sei neska ere ibili ziren joareak jotzen. Beraz, lau taldetan banatuta ibili ziren Eguberri bezperan.

Errege bezperan ere joaldun ttikiak herrian barrena baserrietan eta herrian etxez etxe ibiltzen dira joareak paratuta, goiz goizetik hasituta, joaldunen harrobi bikaina datorrela eraku-

tsiz. Joaldun handiak berriz, Doneztebera joaten dira, Erregeei harrerara egitera. Aurten, bertso afaria ere izan da herriko estalpean, Unai Agirre eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 24AN

Eguberrietako bixita egin du Olentzerok

Ikazkinarekin kantuan ibili dira etxez etxe

Arantxa ITURRALDE

Gabon gaua ere iritsi da aurtengoan eta honekin batera baita ere menditik jeitsi den ikazkina bere astoaren. Herritarrek karrikan

ibili ziren kantuan etxez etxe Olentzeroren laguntzarekin. Labaingo eta Beintzako etxeak bisitatu ondoren, herriko Orbela ostatuan berendu goxo batekin berri-tu zituzten indarrak. Aurretik, Olentzerok Beintzako plazan hurrei goxokiak banatu zizkien.



24.12.2016

ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Olentzero eta bere astoa, herritarrekin kalejiran.

ITUREN



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA

Urte bukaerako besta eskolan.

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 22AN

Besta ederrarekin agurtu dute urtea Pulunpa eskolan

Eguberrietako sariak ere zozketatu zituzten

Arkaitz MINDEGIA

Urtero bezala abenduaren 22an besta ederrarekin oporrak hartu zituzten Pulunpa eskolako irakasle eta ikasle-

ek. Goizetik kantu eta dantza saio politak eskaini zituzten eta saioaren ondoren eguberrietako zozketa egin zen eta honakoak dira zenbaki saridunak: zare eder bat, 593. zenbakia (Sebastin Martin-i egokitu zitzaion); 2. zaria 576 zenbakia (Maite Agesta); 3. zaria 066 zenbakia (Irene Bazte-



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Horra, horra gure Olentzero!!!

Iritsi zaigu olentzero. Bazkal ondoren Aurtizko eta Iturengo haurrek eta gurasoak herriari buelta eman zioten gabonetako kantu goxoak kantatuz. Aurten berrikuntza tiki bat izan dute Aurtitzen, eta hara Olentzero eta Mari Domingiren bisitarekin eman zioten herriari buelta. Eta ondoren Haur guztiek Olentzerok ekarritako opariak hartu zituzten eta elkarrekin elkartearen berendu. Ilunabarrean azken urteetan bezala Iturengo plazan olentzeroren bisita izan genuen.

rrika); Tresanean bi lagunendako otordua 096 zenbakia (Eduarne Miko); Elgorriagako ostuan bi lagunendako taloa eta edaria 751 zen-

bakia; Kiromasaje bat Neus Bernabeu Terapeutaren eskutik 310 zenbakia (Juan Mari Tellexea); eta Apiterapia saio bat Jaione Irisarri-

ren eskutik 491 zenbakia (Malix Goizueta).

Ondotik gosari eder batez gozatu zuten eta behar dituzten oporrak hartu.

ERATSUN

OSPAKIZUNAK → ILBELTZAREN 13TIK 15ERA

Inauteriak asteburuan

TTIPI-TTAPA

Inauterietako seinalea izango da asteburu honetan Eratsunen.

Ilbeltzaren 13an, ostiralean, afaria izanen da.

Ilbeltzaren 14an, larunbatean, bazkaria Oihanak eta Oihanak alaitua. Arratsaldean herriko buelta emango dutiralean, afaria izanen da. Angel Mari Peñagarikano eta Aitor

Mendiluze bertsolariekin eta gero afaria izango dute.

Ilbeltzaren 15ean, igandean, bazkariarekin akituko dira aurtengo inauteriak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lehen mozorroak asteburuan ikusiko dira Eratsunen.

EZKURRA

GIZARTEA → J.J. SUKUNZA ETA F. ETXEBERRIAK


7 kilometroko ibilbidea diseinatu dute herri inguruan egiteko

Intereseko lekuak ikusteko aukera emanez

Fernando ETXEBERRIA

J.J. Sukunza eta F. Etxeberriak herri inguruan 7 kilometroko ibilbide berri bat diseinatu dute. Barranka Ostaturtik hasi eta baselizara iritsi ondotik, ezkerrean dagoen pista hartzen da, lehen zubira ailegatu arte. Erreka gurutzatu eta bi kilometrorra kisu laberara ailegatu eta pixka bat gorago Putzu haun-

diko ur-jauzira. Igoera goxo baten ondotik, iturri bat daukan Gaikutseko borda ardi-bordara ailegatu da. Hortik jaitsiera hasten da Plazenea baserrira eta pista segituz errepidera ateratzen da, ermita eta herrira bueltatzeko. Bi aldaera ere egin dakizkioke bideari: bat, Plazenea bordara ailegatu eta ezkerrean duen bidea hartu eta ermitatik datorrenarekin lotu eta bestea, Martinen etxebizitza ondoan dagoen pista hartu eta ermitaraino joan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ibilbide polita osatu dute herri inguruan.

ABENDUAREN 28KO UDAL BATZARREAN

Ermitaren etorkizuna eztabaidatu dute

F. ETXEBERRIA

Ermitaren etorkizuna eztabaidatu zen abenduaren 28an egindako ez ohiko batzarrean. Lehendik aipatu dugunez, teilatuaren zati bat erori zen aldare gainean. Boluntarioek garbitu zuten eta udaberrian bertuko zaio teiltatua. Baina galdera hau da: Zer egin ermitarekin? Urtean bi meza emateko erabili edo urte oso-

an beste erabilera bat eman, bi dala horiek errespetatu? Udalaren batzar horretan, erabilera anitzera-ko areto bezala erabiltzea onartu zen, batez ere haurrek eta jubilatu-ek erabiltzeko. Mahaiak, aulkiak, 7 ordenagailu... jarri nahi dira. Artza-pezpikutzak egokitze gastuak bere gain hartuko omen ditu, aldaera es-talia egoteko baldintzarekin.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Merkealdia

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

ARKUPEAK



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Delegatuen bilera elkartearen egoitzan.

ELKARTEA → 2017. URTEAN

451.634 euroko aurrekontua izanen du aurten elkarteak

3.518 bazkidek parte hartu zuten iazko bidaietan

tu eta sarreretan orekatuak dauden kontuak ere aurkeztu zituzten. 2017ko aurrekontuari dagokionez, 451.634 eurokoa izanen da.

Fernando ETXEBERRIA

Abenduaren 16an bildu ziren delegatuak Arkupeak elkartearen, bazkideentzako interesekoak diren gaiak lantzeko. Presidenteak jakinarazi zuenez, elkarteak sortuz geroztik Saldias-ko delegatua izan den Jose Urrutiak lan hori uzteko borondatea azaldu zuen. Hainbeste urtez egindako lana eta dedikazioa eskertu ondotik, Martin Urrutia delegatu berria aurkeztu zuten.

2017ko lehen sei hilabeteko boletina banatua zuten, 2016an egindako jarduerak laburrean aipatu zituzten: 3.518 bazkidek parte hartu dute bidaietan eta mendira irteeretan eta 468 bazkidek ikastaroetan. Oraindik erabat itxi gabeko bazkideen ere, gas-

Zumarragara bidaiak

130 bazkide joan ziren abenduaren 13an Zumarragako feriara, eguraldia lagun zutelarik, txoko ezberdinak bisitatzeko. Oiarzungo Gurutze Berri jantokian barne bazkaldu ondotik, berriz ere Jose Angelek girotu zuen bazkalondoa.

Elikadurari buruzko hitzaldia Leitzan

Abenduaren 22an, Zer motatako elikadura da egokiena jubilatutako hitzaldia eskainu zuen Leitzako zine-man Josetxo Ruiz de Lopetedi Iturengo botikariak.

Euskalkideren proposamena

Solaslagunetik deitu dute proposamen be-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Elkarteko bazkide-artisten erakusketa arrakastatsua

Bazkide-artista gehien bildu dituen erakusketa izan da Doneztebekoak. Abenduaren 9an Elgorriagan bildu ziren bazkaltzera eta urtea antolatzerako. Lehen sei hilekoan, taila eta pirograbatutako ikastaroak eskainiko dute.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Mendi irteera Eratsunen

Abenduaren 20an 40 mendizale bildu ziren Eratsungo frontoian, inguruan mendira irteera egiteko. Egunsenti euritsu eta ilunaren ondotik, pixkanaka altxatzen joan zen. Otsolako zelaira joan ziren eta bueltarakoan, marmol harrobi famatuetatik barna itzuli ziren, lau ordu eta erdiko ibilbidea osatuz. Ezkurra Barranka jantokian bazkaldu zuten, bazkaltzera propio etorritako beste bost lagunekin. Josean eta Tomasek musika jarri zuten eta Eratsungo Tolare, Juanito, Miguel eta Jose Luis-ek Ardoaren Bentajak abestu zituzten. Dantzatzera animatu zenik ere izan zen. 2017rako mendira irteeraren plangintza ere azaldu zuen arduradunak. Irizpide bera mantenduz, herri bakoitzak bere inguruan ibilbide bat antolatuko du, gainera Txindoki eta Gorbeara ere joan dena eta norbait animatzen bada, Pirinioetara itzuliz ere egin daiteke.

rezi bat eskainiz Malerrekako jubilatuei, alegia bertako mintzamolde jatorrak ikasteko eta horretan aritzeko saioetara etorri. Hiruzpalau

saio egiteko asmoa da Malerrekako jubilatuek (8 pertsonen osatutako taldean) solastuz (bertako euskaraz hobe) astean behin ordu batez

otsailean edo martxoan. Parte hartu nahi duenak Arkupeakeko bulegora deitu behar du edo bestela Solasgunera 610 920673.



EGITARAUA

Ilbeltzak 21, larunbata

14:00etan Aurrera elkartean **bazkaria** izanen da eskean ibiliko direnentzat. **16:00** aldera **eskean** hasiko dira herriko etxeetan. **Goizaldean** kalejira egiten da plazatik Atekabeltzera eta ondorekin **karaokea**.



Ilbeltzak 22, igandea

12:00 mozorro eta gurdiak kalejiran aterako dira Incansables txarangarekin. **14:30** atsauretuak **bazkaria** izanen dute eskolako jangelan eta **19:00-23:00** Joxe Mendizabalekin **musika**.



Ilbeltzak 23, astelehena

09:00etan gazteak elkartuko dira Aurrera parean Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka auzoetara **eskean** joateko. Baserrietan dabilzan bitartean, herrian, **17:00** umeen **kalejira** izanen da, musikaz alaiturik. Ondoren txokolatada eta goxokiak banatuko dizkiete. **Iluntzean eta gauean** Joxe Mendizabalen **musika** emanaldia izanen da.



Ilbeltzak 24, asteartea

09:30ean dute hitzordua mozorroek Erasote auzora abiatzeko **eskean**. **Goizean eta arratsaldean** puzgarriak eta jokoak izanen dira haurrentzat frontoian. **14:00** Aurrerako bazkideen bazkaria izango da eta atsaureek Atekabeltzen bazkalduko dute. **16:00etatik 18:00etara** jokoak antolatu dituzte frontoian. **18:30** Atsaureen **kalejira** musikaz lagunduta. Ondoren Gabenara taldearekin musika izanen da.

Ilbeltzak 25, asteazkena

16:00etan Umeentzako ikuskizuna.

Melo
Pinturak koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.com



LEITZELARREA S.L.

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20
Tel: 948 510 598 · 669 368 991
LEITZA



· Prentsa · opariak · testu liburuak
· Plastifikatzeak · enkuadernatzeak
· Inprenta lanak · fotokopiak

Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 146



Aliprox



Tel: 948 510 007 · 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa
ihoteak!



LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Ihote zorionsuak denoi!!

MUSUNZAR
OSTATU-JAETETXEA



ONGI
PASA
IHOTEAK

facebook
twitter

Elbarren, 14
948 51 06 07
31880 LEITZA

www.musunzar.com



OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 629 418 431 • 606 307 810

Dia 
OKABIOSUPERMERKATUA
KAFETEGIAIhote zoriontsuak
opa dizkizuegu!T. 948 510 731
Landa Etxea
Leitza**AiNART**
ILEAPAINDEGIAONGI PASA
IHOTEAKElbarren, 67 behea • LEITZA
948 510 197

ONGI PASA IHOTEAK!

Lizarraga
harategia

"GUREA, KALITATEA"

Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

EZKAIN eraikuntzak S.Longi pasa
inauteak !!Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T./F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.comLeitzako
inauteriak

Julian ZABALETA | Udaleko kultur zinegotzia

«Herrian giro koloretsu, alai
eta parranderoa sortzen da»Inauterien bi alderdiak bizi ditu, antolakuntza eta pesta,
biak ala biak «ilusioz»

Herrian izaten diren kultur ekitaldi gehienek isilpeko kontuak ongi ezagutzen ditu Julianek «2015az geroztik Kultur Zinegotzia naiz eta lehenagotik ere herri-mugimendu eta elkarte ezberdinetan ibili izan naiz kultura sustatzen».

Agenda betea eta egutegian gorri markatutako egun dezente izanen dituela pentsa liteke «urte guztiko ekimenak koordinatzea» baitago bere zereginen artean. «Herriko eragile ezberdinekin batera Pesta Batzordean biltzen gara. Orantzarro, ioteak, San Juan Bezpera, Santiburtzioak, Talo Eguna» bertan erabakitzen dute zer antolatu «eta urtero badago berrikuntzaren bat edo zer hobetua». Honetaz gain, aldika herritarrek helarazten dizkieten ekimenei ere bide ematen die «behar dituzten azpiegiturak eta materialak eskura jartzen dizkiegu».

«Mozorrotzea oso gustuko
dut, jendea zirikatzea.
Etxetik ditudan lau trapu
horiek hartu, jantzi, burua
estali eta kalera,
jendearekin nahastea».**INAUTERIEN IZAERA ASKEA**

Inauterietako egitaraua aspaldi prestatua duten arren, inprobisaziotik asko dutela aitortu digu «ioteek berez izatera askea dute. Guk programa botatzen dugu, baina argi dago herritarrek direla programa hori aurrera eramateko giltza eta haien dinamikak direla egunez egun

**ATSEDEN-GOZO**

PINTXOAK, BOKATAK, PIZZAK...

BERTAN JATEKO eta BAITA ERAMATEKO ERE.
ONGI PASA IHOTEAK!

www.facebook.com/atsedengozo

Landabekoa 1zk kalea · LEITZA · 948 610 572



Aristela
DEKORAZIO
TAILERRA

ONGI PASA INAUTERIAK!

- Etxerako arropa, maindirek, koltxak, nordikoak, mantak, sofarako fundak...
- KORTINAK: ehunak, barrak, mekanismoak, kortinak egiteko pieza guztiak...
- INAUTERIETAKO TELAK ETA EUSKAL JANTZIAK
- SUJETADOREAK ETA BAINU JANTZIAK: neurriak eskatzen ditugu, zure forma eta neurria egokitzen direnak eta oso prezio onean

T. 948 61 06 11 - ariztela2010@gmail.com
Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)

TXOKO
tabernaPintxoak
Otaratekoak

ongi pasa ihoteak!

Elbarren, 22
LEITZA
Tel: 948 510 227

Leitzako ioteak koloreztatzen dituztenak». Horren adibide argia Atsauretuen Kalejira izaten omen da «inoiz ez dugu jakiten zenbat jende bilduko garen, ez eta nondik etorriko diren edo non sartuko diren kalejiran». Herritarren erantzunaren baitan dago kalejira horren arrakasta, «eta urtetik urtera erantzun ederragoa da».

HASIERATIK GOGOTSU

Inauterizalea da oso Julian «mozorrotzea oso gustoko dut, jendea zirikatzea. Etxetik ditudan lau trapu horiek hartu, jantzi, burua estali eta kalera ateratzea, jendearekin nahastea». Pesta Batzordean ere prestaketan hasten direnean «ilusio handiarekin hartzen dugu antolaketa garai hori». Eta behin loteetako larunbata iristen denean, «eskelariak dira protagonistak. Atez ate musika daramate eta horrekin batera ioteetako programazioa; martxa polita sortzen dute herrian». Gainera, herritarrek erantzuten dute «ez dira etxe gutxi eskelariei atek irekitzen dizkietenak mokadu goxoa eta edaria eskaintzeko». Igandean berriz karrozen eguna eta bazkari herrikoia izaten da «karrozak egiten dituztenen kreatibotasuna eta umore ona protagonistak dira».

BASERRIETAKO ESKEA

Hala ere, leitzarren artean ohitura bat maitea bada, hori baserrietako eskea izaten da «lehen, gazteagotan eta erantzukizun gutxiago nituenean, lana izaten baitut egun horretan, galtzen ez nuen eguna izaten zen. Niretzat egun politena

«**Astelehenean herritik baserrietara eramaten da musika eta umorea. Baserriarren inplikaziorik gabe, ioteetako astelehena ez litzateke berdina izanen».**

onean. Beraien inplikaziorik gabe, ioteetako astelehena ez litzateke berdina izanen».

ATSAURETUEN KALEJIRA

Eta asteartean, Atsauretuen Kalejirak hartzen du protagonismoa «urtez urte parte hartzaile kopurua gora doa eta herritarrek gero eta euskal ioteetako pertsonaia gehiago berreskuratzen ari dira». Horretarako lanketa berezia egin zuten duela urte batzuk «ALKE kultur taldeko kideok hasi ginen lanketa hau egiten eta herriko jende helduenak emandako testigantzetatik berreraikitzen hasi ginen aspaldiko atsaureen kalejira». Jakintza hori guztia gizarteratzen hasi ziren gero «jendea erakartzen eta animatzen kalejiran parte hartzeko». Horretarako materialak eskuratu zituzten «zakuak, adarrak, larruak, tutturreak... batzuk erosita eta beste batzuk auzolanen egindakoak dira». ALKEk duen material hau jendeari uzten dio egun horretan «hala ere, azkeneko urteetan nabaria da nola herritarrek bere etxeetatik ekartzen dituzten jantzi beharrekoak eta guretzat hain bereizgarriak diren tutturreak eta zankoak».



DENAUTO SAGASPER Tailerra

Ongi pasa ihotekak!!!

AUTO KONPONKETA

Eluseder Ind. • ARESO • T 948 510 610 • F 948 510 917

Ongi pasa
ihotekak!



FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

CPS-1824C/MNA • 026 kolegiatu zenbakia

Bizkortze ariketak • Kirol eta Zirkulazio Masajea • Osteopatia
Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
Etxez etxeko laguntza • Aseguruak
Mutuak • Partikularrak

Huarte Gotzaia, 8 3.C • LEITZA • Tel: 948 510 730

SAGASTI JATETXEA

ongi pasa ihotekak!



Elbarren, 98 • LEITZA • ☎ 948 610 637



948 610 974 | LEITZA



ONGI PASA IHOTEAK!

Olaia Bazar

ONGI PASA IHOTEAK

Jantziak - Loreak
Jostailuak - Papertegia
Etxeko Tresnak
Garbiketarako Produktuak
Herramientak - Oinetakoak
Pijamak - Osagarriak

Landabekoa - Leitza - T. 948 510 437 - 667 675 463

gaztelu scl iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

Tfnoa: 948 510 086 • 948 510 156

Faxa: 948 610 856

LEITZA

KIDE aholkularitza

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autonomoak
- Enpresen sorrerak
- Autoen transferentzia
- Errenta aitortpenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

ongi pasa ihotekak

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T.948 510 990 F. 948 510 429
DONOSTIA: Urbieta, 60 - 1ºEzk • T. 943 420 348 F. 943 441 838
izaskun@kide.eus • www.kide.eus



ttipi-ttapa

(0034) 948 635 458
erran.eus



Elbarren, 36 • LEITZA

Tel. 948 610 976

info@leitzakirolak.com

www.leitzakirolak.com

Urtarrilean eta otsailean
MERKEALDIAK!





ATEAK · TARIMAK · LEIHOAK · TEILATUAK · PARKETAK
ARMAIRUAK · ESKAILERAK · SUKALDEAK
BERRIKUNTZA LEIHO MIXTOAK (EGURRA-ALUMINIOA)
T. 948 451 906 · M 689 53 10 12 · AURTITZ
www.mindegia.com



**ALT XUNEA
ERRETEGIA**

ongi pasa inauteriak!

IREKITA

ostiral eguerditik igande eguerdira,
besta egunetan eta besta bezperatan

Kontsejo, 27 · ITUREN
T. 948 450 410

ileapaindegia
EIDER
Estetika

Asteartea eta osteguna
GOIZEZ
Asteazkena eta ostirala
ARRATSALDEZ
Larunbatetan: GOIZEZ
Kontsejo, 6 · ITUREN
T. 630 633 445

abarun
AURTIZKO ATERPEA

Gosariak
Pintxoak
Menuak
Telf: 948 45 00 67

**MADERAS
SANTESTEBAN**

Ongi pasa inauteriak!

Mendi lanak
(Pinuak erosten dira)

Bigak

Montajea obran

Teilaturako egiturak
Izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatuak

Osagarriak

Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

Aurtitz, Ituren eta Zubietako Inauteriak



EGITARAUA

Ilbeltzak 30, astelehena

Goizean **Zubietako joaldunek**, mozerro eta karrozek lagunduta, **bisita** egingen diete **aurtiztarrei**. Herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik Iturenera joanen dira. **Lasagako Zandandia** parean, **Iturengo joaldunekin elkartu** eta herrian barna buelta emanen dute. Joaldunek aperitiboa hartzen duten bitartean, Iturengo plazan karroza **mozerroek** beren **ikuskizuna** egingen dute.

Ilbeltzak 31, asteartea

Goizean **Ituren** eta **Aurtizko joaldunek** bisita bueltatuko diete **zubietarrei**.



Otsailak 1, asteazkena

Zubietan egun hau izaten da inauterietako azken eguna. Eguerdian bazkaldu ondotik **kontuak** egiten dira. Ondotik joareak jarri eta **Aurtitz eta Iturendarrei azken bisita** egiten zaie ilunabarrean. **Aurtiztar eta iturendarrek bazkaldu** eta arratsaldean **etxez etxe** ibiliko dira joare eta trikitalariek. Ondotik **afariak** izanen dira elkarteetan.

Otsailak 4 eta 5, larunbata/igandea

Kontuen eguna larunbatean egin ohi da **Iturenen**, eta **Aurtizen** igandean. Iturenen **bazkaria** izanen dute Herriko Etxeko ganbaran. Bazkaldu aitzinetik herriko **dantzarien saioa** eta **bertsolariak eta aizkora apustua** izanen dira. Bazkaldu ondotik **dantzaldia** eta **kontuen afaria**. **Aurtizen xaharren afaria** egingen dute igandean.

ONGI PASA INAUTEAK!

BEROTZA
PELLET

PELLET SISTEMEN SALMENTA, INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)



BEROGAILUA



GALDARA



GALDARA MISTOA



OKINDEGIKO LABEA

Jose txo LEKAROZ | Aurtizko akordeoilaria

«Zortzikoa nahitaez jo beharreko pieza da»

Hamar urte inguru daramatza inauterietan akordeoia jotzen

Jose txoren akordeoia ezaguna da inguruko inauterizaleen artean «urte askoan ibilia naiz joareekin baina adinean aurrera nindoala ikusita joareak utzi eta akordeoia hartu nuen, hamar urte baino gehiago dira akordeoiarekin ateratzen naizela». Inauterietako egun guztiak bizi ditu «egun horiek sakratuak dira guretzat. Aski politak dira». Eguna ongi hasteko «goizetako gosaria beharrezkoa da. Hagitz giro ona izaten da eta jende aunitz izaten da». Gosariaren ondotik, joaldunak puskak biltzera ateratzen direnean hasten da Jose txo akordeoia astintzen «kanpotik etorritako soinu jole bat ere izaten da nirekin batera, gehienetan Joxe Angel». Otordu guztien aitzinetik eta gibelatik ere soinua jotzen aritzen dira ordu txikiak arte «Aurtizen nahiko zintzo erretiratzen da jendea, aunitzek hurrengo egunean joareak jo behar dituztelako». Inauterietako egun berezianak «astelehena eta asteartea» izaten direla dio. Azaldu digunez «gosaldu, joareak paratu eta puskak biltzen ditugu herriari buelta eman ez eta horren ondotik itzulia egiten dugu Ituren eta Zubietara». Joaldunen ondotik joan ohi dira akordeoilariak «kalejira jotzen dugu bidean» eta plazako ekitaldiaren ondotik joaldunak saldak hartzera joaten direnean plazan giroa jartzea izaten da beraien ardura «jota batzuk eta zortziko batzuk jotzen ditugu». Zortzikoa «nahitaez jo beharreko pieza» dela dio «Zortzikoa da gauza bat nola Ituren, nola Zubietara eta nola Aurtitzen dantzatzen dena».

Akordeoia prest du eta bere etxe ingurutik igarotzen denak dagoeneko entzun ahalko ditu inauterietako doinuak. Luzaroan iraunen duten doinuak, ez baitu zalantzarik «inauteria mantendu da, mantentzen da eta nik uste mantenduko dela. Oso gurea den zerbait baita, tiki tikitatik hartzen den ohitura».



«Goizetako gosaria beharrezkoa da. Hagitz giro ona izaten da eta jende aunitz izaten da».

LA MASCARA



Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu

Era guztietako osagarrien salmenta

Makillaje profesionala

www.lamascara.es

mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

Iturengo eta Zubietako Udalek

inauteri zorionsuak opa dizkizute herritar eta bisitari guztiei



Tresanea LASAITASUN EREMUA
ESPACIOS DE TRANQUILIDAD

PLATER KONBINATUAK

OGITARTEKOAK

ongi pasa inauteriak!



Kontzeju karrika, 11 | ITUREN | 948 450 287
info@tresanea.com | www.tresanea.com



EHEVERRIA
ZURGINDEGIA



PVC
LEIHOAK

Bertan egindako PVC fabrikazioa

Berritzeak eta obra berriak,
egurra, aluminioa eta PVC.

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 450 327 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es



Lizun
GAZTANDEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK!

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ONGI PASA
INAUTERIAK!

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA
altzuris@yahoo.es · Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 - 699 461 394

SU EGURRA ETA
PIKETEA SALGAI



Tipi-ttapa ko

BERRIAK

SARE SOZIALETAN ERE BAI!

JARRAI GAITZAZUE!

INAUTERIETAN
zure gosari eta bazkariak
ARIZTIGAIN

KANPINEAN!!

ONGI PASA INAUTERIAK!!



SUNBILLA • 948 450 540
info@campingariztigin.com
www.campingariztigin.com



SUNBILLAKO UDALAK

Inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
sunbilda eta
bisitari guztioi



EGITARAUA

Ilbeltzak 27, ortziralea

09:00etan gazteek **gosaria** Ariztigin kanpinea. **Ondotik** 2 taldetan banatu eta baserrietara joan dira, Modesto eta Joxe Angel akordeolariarekin. **Bazkaria** Ix-tola eta Exkernekobordan. **Arratsaldean** herriko haurrentzako **txokolate beroa** eta **17:00/20:30ean** **Dantzaldia** frontoian. **21:30ean** eskean dabilzanen afaria. **Gauean** Emakumeen afaria Ulibeltzak Elkartean eta afal ondotik **sorpresa** izan da.

Ilbeltzak 28,
larunbata

10:00etan Bustitz ostatuan gosaldutik gazteak **eskean** ibiliko dira Beñat akordeolariarekin. **Ondotik** bazkaria egingen dute Fondan. **17:00/21:00etan** umeentzako **berrendua** eta besta Ulibeltzak Elkartean. **Gauean** gazteek **afaria** Elortxurin.

Ilbeltzak 29, igandea

11:00etan karrozen **desfilea** opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko ditu Ulibeltzak Elkartek ikusleen artean. Desfilea bukatzerakoan **zozketa**: zerria eta bildotsa. **14:30ean** **bazkaria** Ulibeltzak Elkartean. **Dantzaldia** Santxotenenaren eskutik.



Juanjo IBARRA | Sunbillako albintea

«Urtez urte parte hartzeak goiti egin du desfilean»

Hogeita hamar urte baino gehiago daramatza igandeko karroza desfilean parte hartzen

1983an *Papa Movila* hartuta atera zirenetik urteak pasa dira baina Juanjori ez zaio apaldu inauterietarako grina «bestak baino gehiago gozatzen ditut eta dudarik gabe, igandea izaten da egunik hoberena. Topera eta gogo haundiz hartzen ditut».

HUTS EGIN GABE

Umetan «gazteak eskean ibiltzen zirela oroitzen naiz» eta horiei zeharka begira egone ondotik, «22 urterekin hasi nintzen inauterietan ateratzen». Eta hasi bazen hasi, «ordutik honat behin bakarrik huts egin dut eta orduan oinean egindako zain-tiratu baten erruz». Gogoan du karrozarekin atera ziren lehenbiziko aldia «inauterietako kuadrilla batek bilera egin genuen eta animatu ginen karroza egitera. Aita santuaren papa movila egin genuen sei edo zortzi lagunek». Orduan ikusi ez zutenek, 2007an izan zuten Papa movila ikusteko aukera «inauterietako 25. urteurrena ospatzen zen eta orduan berriro egin genuen karroza hura».

HIRU EGUNEZ BESTA

Ortziralarekin hasten ditu inauteriak Juanjok «lagunekin afaltzeko ohitura izaten dut» eta larunbatean «karrozari azkeneko ukituak ematen aritzen gara, inauterietako egunik hoberenerako, iganderako dena prest uzteko». Igandean «10-12 laguneko kuadrila elkartu gosalduta, karrozarekin ibili, bazkaldu eta uerga eginez bukatzen dut». Herriko albintea da Juanjo eta inauteriek aunitzez lan gehiago ekartzen ez dioten arren «astelehenean lan gehiago» izaten duela aitortu digu «garbiketa egin eta bestondoa pasatu behar delako».

«Gazteria gogotsu heldu da eta horrela segiz gero etorkizuna segurua da. Inauteriek ez dute indarra galduko».

Mota guztietako karrozak egin dituzte eta lan gehien eman dietena «merkatu txinatarrak» izan omen zen «detalle aunitz zituen eta». Aurten goa prestatzen buru belarri dabilta «abendu bukaeran bilera egin eta denen artean ideia erabakitzen dugu. Erregeak pasa ondoren hasten gara karroza egiten». Poliespana, egurra, burnia... erabili izan dute karrozak osatzeko eta horiekin, «ahal den lekuan» aritzen omen dira lanean. Jantziak berriz, «batzuetan erosi eta bertze batzuetan taldekoren artean josten dituzte». Berak zortea du «urte aunitzetan amak josi baitzitkit jantziak». Ilbeltzaren 29an argituko da misterioa... ea zer duten aurtengorako prestatua.



JANARI-JENDA
MARISOL ONGI PASA INAUTEAK

JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

Ongi pasa inauteriak!
Bustitz
ostatua

T. 948 450 504
Leku Eder - SUNBILLA

PINTXOAK • RAZIOAK
HAMAIKETAKOAK
KAXULAK • BOKATAK

INAUTERIETAKO
MENU BEREZIA



**HARATEGIA
CARNICERIA**

Mª JESUS

Karrika Nagusia, 11 · SUNBILLA
T. 948 451 530 · M. 686 279 252

ONGI PASA
INAUTERIAK

ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA
ETXEKO PRODUKTU PRESTATUAK
ZONALDEKO GAZTAK



MENDEBERRIA
eskabazioak S.L.

ONGI PASA INAUTERIAK



GARRAIKO OPERADOREAK
KAMIOIAK TRAKZIOAREKIN ETA BAINERA

trans-analur ES.L
Garraioak

LEKU EDER 13 · 31791 SUNBILLA

675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)
BULEGOA 948 450 108 · 672 098 384

SASOI

eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 F. 948 456 168
info@sasoi.es

Ongi pasa inauteriak!!



A, B eta C
motako
GASOLIOA
ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

larreta

IGELTSU PROIEKTATUA

PLADUR LANAK

Bidasoa kalea 36 - Bera
larretaigeltsua@gmail.com

Corka Arretxea 627.225.514 Juanen Saraleg 637.921.299



IRURI MOTOR

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA INAUTERIAK!

T. 948 450 399 · 620 950 687
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK · GREMIOEN KOORDINAZIOA
MOTA GUZTIETAKO IGELTSERITZA LANAK

ONGI PASA
INAUTEAK!!

- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak · Teilatuak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zoruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigoi lanak

T. 699 122 815
31791 - SUNBILLA
(Nafarroa)

Sunbillako inauteriak

Amaia ARRETXEA | Sunbillako gaztea

«Haur, gazte edo heldu... denendako bada aukera»

Lagunarte edota familian, «lehen baino lasaixeago baina ilusio berberarekin» bizi ditu inauteriak

Umetan sartu zitzaion barrenean Amaia inauterietarako grina «etxetik ikasitako ohitura da, eskolan ikasten duzuna, herrian ikusten duzuna... ttikitik gustuko nituen eta orain ere bai». Urteak pasa ahala «inauteriak bizitzeko bertze modu bat hartzen zoaz. Lehen gauez besta gehixeago, orain lasaigo... baina etapa bakoitzak badu bere xarma».

ONGI PROBESTUAK

Hiru eguez ospatzen dituzte Sunbillan inauteriak eta «ongi probestuak» daudela iruditzen zaio «haur, gazte, heldu... herritar denendako bada aukera». Amaia hiru egunei ateratzen die zukua «ortziralearre arratsaldea hurrekin disfrutatzen dut eta gauean emakume afarira joaten naiz. Larunbatean goizean lasai eta arratsaldea hurrekin pasatzen dugu eta igandea etxeko denek elkarrekin disfrutatzeke eguna izaten da».

«Urtero urtero emakume
aunitz biltzen gara.
Gazteenak 16-17 urte
inguruan hasi eta ez dago
adin mugarik».



EMAKUME AFARIKO XARMA

Ortziralearre «niretako ongi gordetzen dudana da» erranez hasi da emakume afariri buruz solasean «lagun artean gustura egoteko aukera da». Afaria antolatzen hasi ziren urtean «bete betean asmatu» zutelako iruditzen zaio «urtero urtero emakume aunitz biltzen gara. Gazteenak 16-17 urte inguruan hasi eta ez dago adin mugarik. Bakoitzak nola duen izpiritua, gorputza edo nahi hori... Badira afarira agertu diren 70 urtetik goitiko emakumeak. Belaunaldi desberdinetako emakumeek elkarrekin bizi dugun momentua da».

Bakoitzak nola duen izpiritua, gorputza edo nahi hori... Badira afarira agertu diren 70 urtetik goitiko emakumeak. Belaunaldi desberdinetako emakumeek elkarrekin bizi dugun momentua da».

KARRIKAK KOLOREZ BETEZ

Igandeko eguna ere arront gustukoa du «herriko familia gehienok parte hartzen dugu karroza desfilean eta polita izaten da sortzen den giroa». Kuadrillan osatzen dute karroza eta hamar familia inguru biltzen dira «eguberri inguruan hasten gara prestatzen» argi baitute «lana egin behar dela emaitza polita izateko». Ez dira edozein moztorrekin konformatzen eta urtetik urtera erronka ttiki bat jartzen diote beren buruari «aurreko urteko mailari eustea eta ahal bada hobetzea» dio irrika. Eta ez dira asmo hori izaten duten bakarrak «karroza desfileak izan ditu urte motelagoak, beste batzuk indartsuagoak. Baina baditugu urte dezente karroza kopurua mantentzen dela eta gazte asko dira karroza egiten hasi direnak, zein baino zein ikusgarriagoak». Etorkizuna beraz, badu «asko dira Sunbillako inauteriak ttikitatik bizi eta gustuko dituztenak, eta nik uste urte luzetan segiko dugula ohiturarekin».

KULTURA → ABENDUAREN 18AN

Emanaldi bikainarekin borobildu zuen Abesbatzak 10. urteurrena

Besteen artean, Juan Antonio Lekuona ere omendu zuten

TTIPI-TTAPA

Hamar urte bete zituen iaz Umore Ona abesbatzak eta urte osoan zehar egin zituzten urteurreneko ekitaldiak borobiltzeko, gabonetako kontzertu berezia eskaini zuten abenduaren 18an elizan, Hernaniko Ozenki, Getariko bandarekin eta beste gonbidatuekin bate-

ra. Bezperan, Hernanin, Ozenki abesbatzarekin eta Hernaniko bandarekin batera aritu ziren.

Ospakizunak kontzertua baino lehen hasi ziren, Getariko musika bandari eta Hernaniko Ozenki abesbatzari eskainitako ongietorriarekin. Horretarako, herriko 30 bat neska-mutiko gaztetxok eta gurasoek osatzen duten Irumaita txarangaren laguntza izan zuten. Eguraldia lagun, salda ere eskaini zuten planazan eta ondotik kalejiran joan ziren elizaraino, kontzertua eskaini-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Abesbatzak eta musikariak elkarrekin, elizako emanaldi ederrean.

tzera. Lehenik agurra dantzatu zuen Patxi Iribarrenek. Segidan, Ainara Narbarte zuzenduta, *Adeste Fideles* eta *Elurra mara mara* kantatu zuten eskolako gaztetxoekin batera. Getariko Musika bandak, Eneritz Jauregiren zuzendaritzapean, euskal dantzak jo zituen. Imanol Kamiok zuzenduta, Ozenki Abesbatzak Doinu Zaleko akordeolari orkestrarekin *Czardas de Monti* abestu zuten; Umore Ona abesbatzak, Eneko Amundarainek zuzenduta *Haurtxoa seaskan*

kantatu zuen eta Imanol Kamio zuzenduta, *Svetilen* eta *Hator hator*, bietan Ainara Narbarte bakarlarari zutela. Emanaldia bukatzeko, musika bandak eta abesbatzek elkarrekin Eguberrietako zenbait kantu bikain eskaini zituzten, eliza betetzen zuten zaleen gozamerako.

OMENALDIA

Emanaldiaren bukaera oroiarriak eman zizkieten zuzendari eta abesbatzaren sorreratik bertako kide den Juan Antonio Lekuonari

ere ongi merezitako omenaldia eskaini zioten koruko lagunak, bertso bat idatzia zuen koadroa eta euskal makila oparitut. Akordeoia lagun, bi abesbatzek bertso hori kantatu ere egin zioten. Bukatzeko, denek zutik, Agur Jau-nak kantatu zuten.

Elizako emanaldia hunkigarria izan bazen, zer esan Umore Ona elkartean egindako bazkarian eta bazkalondan izandako giroaz. Hor ere kantuek, musikak, opariek lekua izan zuten, baita bertsoak eta dantzak ere.

LAU ETA ERDIKO ERREGE ABENDUAN

Euskal Herriko elite mailako eta Guillermo Mazo txapelketak irabazi ditu Iker Salaberriak

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko elite mailako lau eta erdiko pilota txapelketa irabazi zuen Iker Salaberria pilotari goizuetarrak. Abenduaren 2an Laudion jokaturako final ikusgarri eta berdinduan 22-19 irabazi zion Arabiourrutia bizkaitarri.

Partida berdindua joan zen. Lehenbiziko bi tantoak sakez egin zituen bizkaitarrak, 3-6 aurretik jarri zen gero goizuetarra. Sakea be-

rreskuratu eta 7-12 eta 15-18 ere aurretik izan zen Arabiourrutia, baina Salaberriak ez zuen etsi. Lau tanto segidan egin eta 19-18 aurretik jarri zen goizuetarra. Hementzina berdindu zuten Abadiñoakoak, baina azken hiru tantoak Salaberriak egin zituen.

GUILLERMO MAZO TXAPELKETA BIHARAMUNEAN

Abenduko lehen asteburua ezin emankorragoa izan zen Iker Sa-

laberriarentzat. Izan ere biharamunean, abenduaren 3an, jubenilei zuzendutako Guillermo Mazo txapelketa irabaztea lortu zuen, Oberenako Matari 18-15 irabazita. Beste goizuetar bat, Aitor Aizkorbe, hirugarren posturako lehia galdu zuen, 18-8, Buruzgaingo Gaskueren kontra.

Nafarroako lau eta erdiko txapelketa ez ofizialtzat jotzen dute adituek Guillermo Mazo txapelketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iker Salaberria eta Aitor Aizkorbe, Guillermo Mazon.

LEITZA

GIZARTEA → ABENDUAREN 12TIK 17RA

Errefuxiatuei laguntzeko bilketa kanpaina arrakastatsua

Amazabal institutuko ikasleek antolatuta

JM BARRIOLA

Greziako Chios irlara etortzen diren errefuxiatuei laguntzeko material bilketa antolatu zuten abendu erdialdean Amazabal institutuko ikasleek. Intxaurrondoko gastronomia elkartearekin elkarlanean aritu dira, Zaporeak proiektua ari dira gauzatzen Grezian, eta bildutako fruitu lehorrak, kontserbak, olio eta gatza «1.500 lagunentzako otorduak prestatzeko laguntza izan da».

BIGARREN BILKETA

Material bilketa antolatzen duten bigarren aldia da hau. Lehenbizikoa ekainean izan zen eta ordukoan bezalaxe, herritarren erantzuna «oso ona» izan dela adierazi dute Amazabaleko ikasleek, «oso gustura geratu gara egindako lanarekin eta bildutako materialarekin».

Kopuru zehatzik ezin dute esan «baina furgoneta bat betetzeko adina bildu dugu». Horregatik, eskerrak eman nahi izan dizkiete laguntza eman duten guztiei.

Asteazken zehar, Amazabal Institutuan bildu zuten material eta larunbatean, abenduaren 17an bilketa plazan egin zuten. Zaporeak proiektuko boluntarioa den Sagrario Lasarte ere bertan izan zen Zaporeakeko arropa saltzen.

HITZALDIA

Horrekin batera, hango errealitatea ikustarazteko asmoz, hitzaldiak ere antolatu zituzten eta Chios irlan uda honetan boluntario lanetan ibili diren bi herritarren testigantzak entzuteko aukera izan zen. Bertan aditutakoen ondotik «argi dago arazoa ezin dela atzean utzi, lantzen segitu beharra dugu» diote. Eta hirugarren bilketa bat antolatu beharko balitz ere prest daude «dena den seinale hobea litzateke beharrik ez balego».



ARGAZKIA: AMAZABAL IKASTETXEA

Plazan jarri zuten bilketa gunea eta Zaporeak proiektuko materiala ere salgai jarri zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Informazio puntua moldatzeko herritarren iritzia bildu dute

Leitzako Turismo mahaiak herritarren esku utzi du plazako informazio puntua moldatzeko lanen erabakia. Horretarako 12 proiekturen inguruko galdeketa egin zuten abenduaren 24an. Karmele Agirre arkitekturen ikasleak, karreran aurkeztu beharreko proiektu bat egiteko Leitzako turismo-informazio puntua aukeratu zuen eta bere ikaskideekin batera osatu ditu 12 proposamen hauek. Abenduaren 24an, Leitzako plazan ikusgai egon ziren guztiak eta herritarrek gustukoena bozkatzeko aukera izan zuten. Gainera, botoa eman zuten artean Kaxkabeltza elkarteak osatutako saski bat zozketatu zuten eta Enaitz Otermin izan zen sariduna (ezkerreko argazkian jasotako sariarekin).

DUELA BI URTE EGON ZEN LUIZIAREN ONDORIOAK

Plazaolako bide berdean hondatuta dauden zatiak konpontzeko eskatu dio Udalak Gobernuari

Abenduaren 15ean Nafarroako Gobernuarekin izandako bileran, Plazaolako Bide Berdean, Leitzako zatian, orain dela 2 urte gertatutako erortzak konpondu gabe segitzen duela gogorarazi zion alkateak Turismo eta Komertzio Zuzendariari. Alkatearen ustez, «ezin gara murgildu epe luzeko turismo proiektuetan urgentzia eta larritasuna duten gaiak konpondu ga-

be, Plazaolako erortza kasu. Herritarren artean kezka handia dago gai honekin, asko baitira bertan aisialdia igarotzen dutenak».

Gaur da eguna, Andoaindik heldu diren zikloturistak Plazaolatik errepidera atera behar direla Leitzara iristeko. «Gainera, erortza areagotu edo errepikatzen diren arriskuak hor jarraitzen du, arazoa konpontzen ez bada».

Ba al zenekien

Mikel Illarregi herritarrek udan zineman eskainitako *Natura. Sentimenduak eta emozioak* emanaldiaren DVDa eta olerkien liburuxka 11 euroren truke eskura litekeela herriko zenbait komertziotan eta jomixa@gmail.com helbidean.

GIZARTEA → ABENDUAREN 17AN AURKEZTU ZUEN EKIMENA MENDIALDEKO GURE ESKU DAGOK

Ekainean herri-galdeketa egiteko sinadura bilketa martxan jarri dute

Goizuetan 96 Aranon 15, Leitzan 253 eta Areson 38 sinadura bildu beharko dira

TTIPI-TTAPA

Mendialdeko Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena egin zuten abenduaren 17an Lekunberrin. Leitzaldeko eta Lekunberri-Larraun aldeko hainbat lagun bildu ziren eta ekainean herri-galdeketa egiteko asmoa azaldu zuten.

Horretarako, 16 urte-rik gorako biztanleen %10aren babes behar dute Leitzan eta Lekunberrin eta %15ekoa gainontzeko udalerrietan. Babes hori sinaduren bidez adieraziko da eta bi hilabetez Goizue-



ARGAZKIA: GURE ESKU DAGO

Hainbat lagun bildu ziren abenduaren 17an Lekunberrin, Gure Esku Dago ekimenarekin bat egitera..

tan 96 sinadura, Aranon 15, Leitzan 253 eta Areson 39 bildu beharko dituzte.

DINAMIKA BIZIA

Gure esku dago 2013an sortu zen dinamika herritarra da «sentsibiltate, kolore eta jatorri ezberdinetako herritarrak erabakitze eskubidea gauzatzeko helburuaren inguruan

biltzen dituen». Agerraldian adierazi zuten, herriko plaza eta txokoetan egindako aldarrikapenak «elkarrekin, indarrak batuz» egiteko garaia da. *Hemen gaude!* proiektua sortu dute «herritarrek euren borondatea modu argian adierazteko». Ekaineko herri galdeketa, berme juridikoa eta baliozkotasun legala izan

dezan «protokolo zorrotza jarraituko da» eta ez hori bakarrik, hemendik ekainera bitarte hainbat pauso ere eman beharko dituzte galdeketa gauzatu ahal izateko».

Abenduko agerrialdia aurretik herritarren zalantzak eta iritziz biltzeko inkesta ere egin dute, «eta eragile anitzekin elkartu ondoren, horietako askoren

atxikimendua lortu dugu jada. Nabarmentzeko gainera, orain arte dinamikarekiko itxirik egon den jendea hurbiltzea lortu dugula». Inkestaren emaitzetan eta hartu-eman horietan argi ikusi dute herritarren oniritzia badutela: «Horregatik, 2017ko ekainean erabakitzeko dugun eskubide demokratikoa egikaritzeko dugu».

ARESO

GIZARTEA → URTARRILETIK AURRERA

Eskolan zaintza zerbitzua eskaintzen hasiko dira

Eskolan sartu aurretik edota bazkalondoan

Juana Mari SAIZAR

2017tik aurrera eskola orduz kanpoko zaintza zerbitzua eskain-

tzeko asmoa dute Nazabal eskolan.

Gurasoek 08:00etatik 09:00etarako tartean haurrak eskolara eramateko aukera izango dute eta bazkalorduan, 12:50etik 14:50era, haurrak eskolan uzteko.

Horrela, ordutegi aldetik zenbait gurasok izan ditzaketen arazoei irtenbidea eman nahi zaie. Pertsona bat kontratatuko da haurrak bere zaintzapean egon daitezten eta bazkaria emateaz ere arduratuko da.



ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA

Arriskurik gabe paseoa ibiltzeko aukera

Egin beharreko lan guztiak bukatuta, erabilgarri dago herri sarreratik Ibiur artera doan oinezko bidea. Aurreratzean, errepidetik ibili beharrean, paseoko toki dotorea dute herritarrek eta bisitariek.

BAZTAN

GIZARTEA → ERRATZUKO IÑARBEGI INGURUAN

Alarma-sistema jarri du Gobernuak Elizondon uholdeak prebenitzeko

Ur-emia neurtzeko estazio batek nahiz datuak denbora errealean jasotzen dituen euri-neurgailu batek osatzen dute



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Erratzuko Iñarbegi inguruan jarritako euri-neurgailua.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak uholdeak prebenitzeko alarma-sistema bat jarri du Elizondon; sistema hori ur-emia neurtzeko estazio batek nahiz datuak denbora errealean jasotzen dituen euri-neurgailu batek osatzen dute, eta Erratzun jarri da.

Zehazki, ur-emia neurtzeko estazioa Elizondon ibaian goiti dago, Iñarbegi eta Arango errekaetok bat egiten duten tokian; Erratzuko hegoadean, datuak denbora errealean

jasotzeko euri-neurgailu batek, berriz (Iñarbil auzoko Iñarbegi inguruan), Autzako hegoadean izandako ekaitzen prezipitazioak erregistratuko ditu. Gaurgo martxan dauden azpiegitura horiei esker, Elizondok bere udal-jardueraren plana hobetu eta antolatu ahalko du uholde-arriskuari aurre egiteko.

Orain arte, Baztanen denbora errealean eu-

ria jasotzeko estazio meteorologiko bat zegoen (Gorramendi), ibarraren iparraldeko euri-neurgailua erregistratzen duena, eta baita Oharrizen dagoen ur-emia neurtzeko estazio bat ere Elizondon ibaian behera.

Elizondon uholdeak sarri samar gertatzen dira. 2014an gertatutakoaren ondotik, honako hau egiaztatu zen: orduko alerta-sistemek

uholde-arriskua ezin izan zutela garaiz abisatu: alde batetik, uholdea arras bizkor sortu zelako, eta bertzetik, Oharrizko ur-emia neurtzeko estazioko ur-mailaren alerta Elizondon uholde gertatu baino minutu gutti batzuk lehenago iritsi zelako, astirik eman gabe.

Denbora errealean hartutako datuak Interneten kontsulta daitezke.

FLASH

San Anton eguna

San Anton Eguna ospatuko dute Elizondon urtarrilaren 17an. As-tearte goizeko 11etan zopak banatuko dira, eguerdian bertsolariak ariko dira kantari eta 13:00etan zozketa egingen da, Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxearen alde. Beti bezala, Balleko Etxeko balkoian egingen da zozketa eta txartelak euro baten truke eros daitezke komertzioetan edo egunean berean, albinteen eskutik.

Elizondoko Lanbide Eskolari ziurtagiria

Hezkuntza departamentuak kalitatearen kudeaketa sistemak ezarri dituzten Nafarroako 21 ikastetxeei ziurtagiriak banatu dizkiete. Kalitatezko Zentroa ziurtagiria lortu du Elizondoko Lanbide Eskolak.

LANDA GARAPEN PROGRAMAKO LAGUNTZETARAT PROIEKTUA AURKEZTEKO 30.000 EUROKO KONPROMISOA HARTU DU

“Baztan marka” sortzeko lehen pausoa eman du Udalak

TTIPI-TTAPA

Baztan bailarako eragile sozioekonomikoen aspaldiko eskariari bidea emanez abenduaren 23an egin zen osoko bilkuran Udalak “Baztan-marka” egiteko mozioa onartu zuen. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernuak onartutako 2014-2020 Landa Garapen Programarat markaren egitea proiektu beza la aurkezteko aukera ireki zuen osoko bilkurak.

Laguntza %70 artikoa izaten ahal da eta momentu hone tan laguntza deialdirat aurkezteko finantzaketa konpromisoa hartzea zegokion udalari. Hala, EH Bildu, Ezkerra, Geroa Bai eta Auzolaneanen aldeko 9 bozkekin eta UPNren 3 abstentziorekin mozioa onartu eta Udalak aipatu programarat aurkezteko finantzaketa konpromisoa hartu du.

Kontuan harturik Baztango egitura sozioekonomikoa, zein nean -ohikoan landa-eremuetan ematen diren autonomo eta arlokako jarduera tasak ematen baitiren-, arlo eta jende desberdinen arteko elkarekintza bulkatu eta dinamismo sozial, ekonomiko eta kulturala indartzeko balioko du markak, hau da, lurraldea biziarazteko eta kanpora begira aitzinetik adostutako irudi, mezu eta balio batekin, izaera berezidun lurralde bezala agertzeko.

Udalak Landa Garapen Programako dirulaguntza erdies ten badu eta urteko aurrekontuak onartzen badira marka egiteko aholkularitza kontratatu eta egiazko prozesua hasiko da. Bertzenaz, lehenabiziko pausu hau, horretan gelditzeko arriskua egon daiteke.

KULTURA → ILBELTZAREN 16TIK 22RA

Euskal Nobela Beltzaren Astea egitarau betearekin dator

Ekarpena eman duten 77 pertsonen izena ageri da kartelean

TTIPI-TTAPA

(H)ilbeltza euskal nobela beltzaren astea ospatuko da ilbeltzaren 16tik 22ra, egitarau zabalarekin.

Hilaren 16an, astelehenean 19:30ean Arizkungo liburutegi beltzan, idazleekin Solasean ekimenaren baitan, Patxi Larrionekin *Feriatzaileak* liburuari buruz solasean ariko dira.

Hilaren 18an, asteazkenean 19:30ean Anizko elkarteetan, *Beltz guztiak ez dira bele* solasaldia eskainiko du Miel Anjel Elustondok, Gotzon Garate oroimean.

Hilaren 19an, ortzegunean 19:00etan, Berroetako Gure Ametsa elkarteetan, *Patziku hil arte solasean* hitzaldia eskainiko du Patziku Perurenak, *Hilen xarma* liburuaren inguruan.

Hilaren 20an, ortzi-ralean 19:00etan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, *Euskal Harriaren ABDak laborumetraia ilun aukeratuak* bideo emankizuna eskai-

niko dute Beñat Iturriotz, Santi Leoné eta Ane Urkiolak.

Hilaren 21ean, egun osoko egitarau zabala prestatu dute. Hasteko, larunbat goizeko 11etan Arizkunenean, *Fikzioko argudioak, politikaren trama beltzetik* mahai ingurua eskainiko dute Teresa Todak eta Gorka Bereziartuak, Mikel Soto moderatzaile dutela. 14:00etan bazkaria izanen dute Erratzuko Etxeleberteko Txokoa elkarteetan. Ondotik, elkartearen berean liburu aurkezpenak eginen dituzte: *Lehertu da festa* (Eneko Aizpurua), *Ultimes déchetes* (Itxaro Borda), *33 ezkil* (Miren Gorrotxategi) eta *Freeport* (Ander Odriozola). Ondotik, Erratzuko ostatueta barna *Susmagarrien gaua*. 21:00etan kontzertua Etxeleberteko Txokoan, *Dix eta Biok* Markos Untzetaren eskutik.

Hilaren 22an, azkenik, igande goizeko 11:30ean ipuin kontaketa teatralizatua eginen dute Lekarozko plazan. 19:30ean berriaz, bertso-trama izanen da Arizkunenean. Andoni Egaña, Onintza Enbeitza, Julio Soto eta Alaia Martin ariko dira bertsoetan, Josu Goikoetxea



UTZITAKO ARGAZKIA

Larrialdiei buruzko ikastaroa eman dute Berroetan

Kristina Urrutia amaiurtarrak eta Elena Danboriena berroetarrak, larrialdietan nola jokatu irakasteko ikastaroa eman zuten Berroetako batzartegian. Berroeta, Aniz eta Zigako jende ugari hartu zuten egitasmoan. Arras interesgarria izan zen, zalantza ugari argitu zituzten eta bertaratutako denak arras kontent atera ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herri kirolak batu ditu Aniz, Berroeta eta Zigako gaztea

Aniz, Berroeta eta zigatar gazte kuadrilla honek abenduaren 3an Zigako plazan hitzordua jarria zuen herri-kirol saioa eskaintzeko: koxkor biltzen, laisterka eta aizkoran aritu ziren. Hiru herrietatik jendea agertu zen, euren herritarrek animatzera. Guztiak suertatu ziren garaile, goiz ederra pasa zutelako lagun eta herritarren artean.

gai-jartzailearen erranetara.

(H)ilbeltza elkarteak antolatutako Euskal Nobela Beltzaren Astea, Baztango Udalaren eta hainbat komunikabide, elkarte eta herriren laguntzarekin. Horretaz gain, bertze zenbait laguntzaile biltzeko kanpaina ere burutu dute,

Izan (h)ilbeltza, zure izena gure izena izenburupean. 77 ekarpen lortu

dituzte kanpainen eta beraien izenak ageri dirakartelean.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu



Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

BAZTAN

GIZARTEA → BAZTANGO UDALAK ETA NAFARROAKO GOBERNUAK

Etxebizitzen alokairua bulkatzeko hitzarmena sinatu dute

Nasuvinsak kudeatzen duen Alokairu-Boltsa baztandarrek udalaren bidez erabiltzen ahalko dute

TTIPI-TTAPA

Miguel Laparrak Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Eskubide Sozialetako kontseilariak eta Joseba Otondok, Baztango alkateak, udala "Alokairu-Boltsa" bizitegi programaren erakunde laguntzaile izendatzeko lankidetzeko hitzarmena sinatu zuten abenduaren 7an. Honen bidez baztandarrek etxea iza-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Joseba Otondo alkatea eta Miguel Laparra, hitzarmena sinatzen.

tea errazteko, hutsik diren bizitegiak etxebizitzaren merkaturat aterarazi nahi dira.

Horretarako, bertze neurrien artean programak etxe-jabeari hila-

betero ordainsaria tenorez ordainduko zaiola bermatuko dio, bizitegia egoera onean itzuliko zaiola eta arrisku anitzeko aseguruak kontratatuko dela. Bertzal-

de errentariak, Eskubide Sozialen departamentuaren bidez alokairurako diru-laguntzak hartzen ahalko ditu.

Zerbitzu horiek guztiak Baztango Udaletik

emanen dira eta, horren berme, Nafarroako Gobernuak Nasuvinsaren bidez kudeatzen duen *Alokairu-Boltsa* programa izanen da.

Baztango Udalaren dako programa hau interes bizikoa da, horregatik, horren berri izan zuelarik Nafarroako Gobernuarengana jo zuen, baztandarrei zerbitzu hau eskaini ahal izateko hitzarmen baten bila.

Hitzarmen honekin udalak Etxebizitzak alokatzeko udal Zerbitzua abiaraziko du, helburua herritarrei etxebizitza izatea erraztea da, horretarako Baztanen diren etxe hutsei nolabait aterabidea bilatuz. Ildo horretatik Baztanen 860 etxe huts daudela aipagarria da.

20.299,74 EURO KUKTUR ELKARTE EZBERDINEN ARTEAN

2016ko kultur jarduerak antolatzeagatik dirulaguntzak banatu ditu Balleko Etxeak

TTIPI-TTAPA

Kultur jarduerak egiteko eta kultur elkarteak diruz laguntzeko 20.299,74 euro euro bideratuko ditu Baztango Udalak. Horretaz gain, ikastetxe ezberdinetako Guraso Elkarteek urtean zehar antolatutako kultur ekitaldietarako ere 3.247,20 bideratu ditu.

Kultur jarduerak antolatzen dituzten elkarten artean, kopururik handiena **Baztandarren Biltzarra** Elkarteak jasoko du, 5.075,63 euro, Baztandarren Biltzarraren desfilea antolatzeagatik; **Baztango Dantzariak** elkarteak 3.376,98 euro jasoko ditu (1.184,31 euro Bailableak antolatzeagatik eta eta 2.192,67 euro Artaxoako Bandarekin dantza erakustaldia eskaintzeagatik); **Jo ala Jo** Kultur Taldeak 2.992,92 euro jasoko ditu (2.971,78

euro Kirikoketa Eguna antolatzeagatik eta 21,14 euro Mutildantza ikastaroarengatik); **Erratzuko Kultur Elkarteak** 2.507,34 euro jasoko ditu (1.122,56 euro Gizakunde antolatzeagatik, 456,80 euro bertso afariarengatik, 393,36 kantu zaharren tailerragatik, 245,32 euskal dantzen tailerragatik, 114,20na euro euskal sukaldaritza eta horniduragatik eta 60,90 euro Joseba Rekondoren liburuaren aurkezpenarengatik); **Elizondoko Abesbatzak** 2.081 euro Azpilkuetako kontzertuarengatik; **Irurritako Dantzariak** elkarteak 1.658,88 euro Dantzari Eguna antolatzeagatik; **Elizondoko Recreo** Musika bandak 1.550,60 euro Gartzango kontzertuarengatik; **Baztango Bertso Eskolak** 541,40 euro Bertso Showarengatik; **Elizondoko Kasino Elkarteak** eta

Museo Etnografikoaren Lagunek 325,53 euro (304,53 euro pintura lehiaketagatik eta 21 euro magia ikuskizunarengatik) eta **Itxusi argazkilarik elkartek** 189,49 euro erakusketagatik.

GURASO ELKARTEEI ERE LAGUNTZA

Baztango ikastetxe ezberdinetako Guraso Elkarteek antolatutako kultur ekitaldietarako dirulaguntzak ere onartu ditu Balleko Etxeak eta denetara 3.247,20 euro. **Irurritako Guraso Elkarteak** 1.435 euro jasoko ditu (talo tailerra, Arizkunea ateraldia, ginkana, gaztain bila ateraldia, kometen erakusketa, lore-ontzien erakusketa eta Donejakue ibilbidea); **Elizondoko eskolako Guraso Elkarteak** 1.091,20 euro (eskulanak, jokuak euskaraz eta dantzak); **Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak** 391 euro (Katxiporreta ikuskizuna) eta **Erratzuko Ertzuin elkarteak** 330 euro (euskal dantzak, ibilbide megalitikoak, kamiseta tailerra, talo tailerra, ipuin kontalariak eta Eguberrietako apaingarriak).

GIZARTEA → AZAROAREN 24AN

2014ko uberroetako zerga salbuespenak itzuli ditu Udalak

Aldeko txostena duten 24 eskatzaileei 13.595,56 euro bueltatu zaizkie

TTIPI-TTAPA

Hala dagokienei 2014ko uberroetako zerga salbuespenak itzuli berri dizkie Udalak. Zerga salbuespena uztailaren 18ko 245/2014 foru aginduaren

bidez arauturik dago eta, horren arabera, aldeko txostena duten 24 eskatzaileei 13.595,56 euro itzuli zaizkie.

Bertzalde, aipatu legearen seigarren puntuan heldu denez *kontzeptu horiengatik jasotakoak ez du jasandako kalteen kopurua gaintzen ahalko*. Hau da, aseguruaren polizek edo laguntzek kalteen %100 estali duten neurrian, ez da zerga salbuespenik egin eta, horregatik, 19



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Herrietako alkate gehienak aukeratu dituzte

Hamabortz herrietako alkateak aukeratzeko lehen deialdia izan zuten abenduaren 18an. Espero bezala, deialdiak ez zuen aparteko erantzunik izan eta 15 herrietatik seitan ez zen alkaterik aukeratu. Lehen deialdian aukeratutako 9 alkateen artean, bortz berriak dira, horietatik bi emakumeak. Elizondon Alazne Sansiñena Lertxundi aukeratu zuten (argazian batzarrea) eta Anizen Ainhoa Maritorea Azkarate; Arizkunen Asier Lizarza Esparza; Azpilkuetan Andres Azkarraga Iribarren eta Erratzun Gamioako Miguel Etxandi dira alkate berriak. Alkate karguan segituko dute Almandozko Luis Roldanek, Elbeten Fermin Almandozek, Gartzainen Dani Arraztoak eta Iruritan Pello Obregozok. Gainerako sei herrietatik bakarrean egin behar izan dituzte hauteskundeak, Lekarozen Egu-berri egunean, Agurtzane Elizegik eta Mattari Plazak beraien kandidaturak aurkeztu zituztelako. Azkenean, Mattari Plaza izanen da alkate. Berroetan Carlos Garaikoetxea Elso eta Oronozen Ruth Peña Tena aukeratu zituzten. Amaiur, Arraioz eta Zigan oraindik aukeratzekoa zuten hau idazterakoan.

eskatzailek ezezko erantzuna izan dute. Bertze 7 eskatzaile, es-

katutako dokumentazioa ez aurkezteagatik edo eskaria epez kan-

po egiteagatik salbuespenetik kanpo gelditu dira.

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

BAZTAN

GIZARTEA → GEROA BAI-REN ETA GOBERNU TALDEAREN PROPOSAMENAK

Bake Epaitegiaren kokapenak eztabaida sortu du Udalean

Foruzainen lehengo komisaldegian paratzea proposatu dute EHBilduk eta Ezkerrak eta plazako eraikinean Geroa Baik

TTIPI-TTAPA

Udal Gobernu taldeak Bake Epaitegia Foruzainen Elizondoko lehengo komisaldegian jartzeko proposamena egin du. Lanak egiteko 10.000 euroko aurrekontua du eta Nafarroako Gobernuak 5.000 euroko laguntza eman zuen. EHBildu eta Baztango Ezkerraren erranetan, «Geroa Baik, UPNk eta Auzolaneanek laguntza hori jasotzeari ezetz erran zioten».

Geroa Bairen kasuan, prentsan agertu duten bezala, Bake Epaitegia plazako eraikinean paratzeko eskaera egin dute. «Horretarako, udal gobernu taldearen erranetan bistan denez, lehenik, plazako eraikina akitu beharko litzateke eta hasierako proiektuaren arabera 200.000 euro inguru beharko lirateke». Nafarroako Gobernuak gisako proiektuetarako ez du dirulaguntzik aurreikusten. Hortaz, Geroa Bairen proposamena ez dela bideragarria diote EHBilduk eta Baztango Ezke-



UTZITAKO ARGAZKIA

Urte bukaerako afaria egin dute Suinki euskaltegikoek

2016 urteari akabaila emateko ohi bezala afaria izan zuten Suinki AEK euskaltegiko ikasle eta irakasleek abenduaren 16an. Giro ederrean joan zen afaria eta afal ondoa eta aurtien ere, euskara ikasten segitzeko xedea azaldu zuten.

rrak: «Udaletxeak halako dirurik ez du eta Nafarroako Gobernuaren halako laguntzarik ez dago».

Udaleko gobernu taldeak, konponbide merke eta sinplea aurkeztu duela dio: «10.000 euroko proiektua, zeinaren erdia Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen baitzuen».

GEROA BAI-REN PROPOSAMENA

Geroa Baik, bere aldetik, bake-epaitegia Elizondoko plazako udal eraikineran eramatea proposatu du, gaur egun dagoen eraikinak ez baitituz beharrezko segurtasun eta kalitate bermeak ematen. «Enparantzako eraikina zerbitzu ugari emateko prestatu zen, bake-epai-

tegia bertze batzuen artean», adierazi du udal taldeak. Geroa Baik gogorazi du bake-epaitegia segurtasun baldintzak betetzen ez dituen eraikin batean kokatzeko erabakia gobernu taldeak hartu zuela aurreko legegintzaldian eta aurtien erabaki horrek bere horretan segitzen duela.

«Azken udalbatzan proposamen bat aurkeztu zen bake-epaitegia Forunzaingoaren antzinako bulegora eramateko. Aurka bozkatu genuenez deritzogulako arrazoizkoa lokal horiek egokitzea, Udalarenak ez baitira, hutsik dauden beste udal eraikinak ditugunean. Gainera, bake-epaitegia Udalaren inguruetatik deslokalizatzea aka-

tsa dela uste dugu bai eta bizilagunentzako kaltea ere, kasu askotan gestio bakarra egiteko mugitzeko beharrra edukiko bailukete», azaldu du Baztango Geroa Baik.

Udal taldearen aburuz, proposamen hau Udalbatzara iristean «agerian uzten du gaur egun Udalak ez duela bere zerbitzu guztiak eskaintzeko adina toki». «Beharrezkoa da Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak enparantzako udal eraikineran hedatzea, bere garaian helburu horretarako eraiki baitzen, eta Baztango Geroa Baitik uste dugu ezin dezakegula denbora gehiago pasatzen utzi hura egokitu gabe», akitu dute idatzia.

BAZTAN ETA LARRAUN

Hainbat abeltzainen esnea jasotzeari uko egin dio Danonek

TTIPI-TTAPA

Larraun eta Baztan inguruko zazpi abeltzainen bizi duten egoera larria salatu du EHNE sindikatuak. Esnea ekoizten duten base-rritar hauek, esnea bilduko dien enpresarik gabe geratuko dira. Hiru hamarkadaz hutsik egin gabe Danone enpresari esnea entregatzen jardun ondotik, enpresa honek apiriletik aurrera beraien esnea ez duela bilduko adierazi die. Guztira, 14.000 litro esne (bi egunetik behin) ekoizten dituzten zazpi abeltzain dira egoera honetan daudenak. Egun batetik bertara, Danone abeltzain hauen esnea ez biltzeko erabakia hartu du, ustiategi ertain eta txikien lana albo batera utzi eta ustiategi handiak ekoizten duten esnea biltzera jotzeko. 2015eko apirilean esne kuoten sistema bertan behera geratu zenetik, abeltzainen bizi duten ahulezia nabarmen geratu dela uste du EHNEk. Erabaki honen ondorioz, kaltetutako zazpi baserrietatik hiruk esnea ekoizteari utzi diote.

Hala, azken urteotan esne ekoizpena zuzendutako 100 baserri baino gehiago galdu dira Nafarroan: 2005ean 269 baserri zeuden, 2016an 160 geratzen dira (Nafarroako nekazaritza ustiategiaren eroldako datuak).

GIZARTEA → ABENDUAREN 21EAN AGERRALDIA EGIN ZUTEN BAZTAN-BIDASOALDEA, ULTZAMA ETA ESTERIBARKO ZENBAIT ALKATEK

Aroztegiak herritarrek erabakitzeko eskubidea aldarrikatu dute

Erabakiak UGPSA erabiliz hartzen badira, «tokiko entitateak soberan daude eta demokraziarik ez dago» salatu dute

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegiako proiektuari buruzko iritzia emateko eta batez ere egitasmoa Udalez Gaindiko Plan Sektorial gisara tramitatzeko erabakia kritikatzeko eskualdeko eta Baztanek mugakide dituen hainbat udalerrietako alkate eta zinegotziek agerraldia egin zuten abenduaren 21ean Udaletxean. «Proiektuaren onura edo kalteetatik harago, herrien etorkizuna baldintzatuko duten proiektuei buruz herritarrek beren iritzia agertzeko eskubidea dute eta administrazio



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Inguruko herritako zenbait alkatek herritarren borondatea errespetatzea eskatu dute.

publikoak herritarren errana errespetatzeko betebeharra. Demokrazia ari gara. Ez gehiago ezta guttiago ere», adierazi zuten. Agerraldian eskainitako adierazpenari atxikimendua adierazi diote Bera, Etxalar, Arantza, Igantzi, Bertizarana, Esteribar, Ultzama, Doneztebe, Lekaroz, Ituren, Donamaria eta Baztango alkateek.

Aroztegiako proiektuak orain arte gauza-

tutako bidearen berri eman zuten agerraldian. Epaitegietako zenbait harat-honaten ondotik, Nafarroako Gobernua Udalez Gaindiko Sektore Plan bezala bideratzea erabaki zuen. Horrela, agerraldian izan ziren alkateen iritziz «proiektuaren eraginpeko tokiko entitateak, Baztanek, ez du deus erratekorik, eta lekaroztarrek, guttiago».

Hala ere, 2009an Le-

karozko herriko batzarra deituta eta 2016ko ekainaren 5ean Baztan-go Batzar Nagusiak deituta egindako herri-galdeketa «herritarrek proiektuari ezetz erran zioten».

«HERRITARREN IRITZIA»

Alkate hauen erraetan, «proiektuaren onura edo kalteetatik harago, herrien etorkizuna baldintzatuko duten proiektuei buruz herri-

tarrek beren iritzia agertzeko eskubidea dute eta administrazio publikoak herritarren errana errespetatzeko betebeharra. Demokrazia ari gara. Ez gehiago ezta guttiago ere».

Gauzak horrela, herrien etorkizuna baldintzatuko duten proiektuei buruz herritarrek erabakitzeko duten eskubidea aldarrikatu zuten: «Herritarrek ez badeute beren geroa baldintzatuko duten proiektuetan erabakitzen ahal eta proiektuei buruzko iritzia sailhesteko erabakiak ohiko bideetatik kanpo, Udalez Gaindiko Plan Sektorial bezala hartzen badira, tokiko entitateak soberan daude eta demokraziarik ez dago».

Horregatik, Batzar Nagusiak antolatutako galdeketa haren balioa aintzat hartzen dute alkate hauek eta idatzia sinatzen duten alkateek Nafarroako Gobernuari baztandarrek galdeketa errandakoa bertetzeko eskatu diote.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

ZUGARRAMURDI

KIROLA → ABENDUAREN 10A DESAFIO EGUNA

Boteluzeko partida eta pala txapelketaren finala egun berean

Boteluzean, lehen aldiz Etxalarako ekipa nagusitu zaio herrikoari, elkarren kontra jokaturako hirugarren norgehiagokan

Margari eta Koro

Abenduaren 10ean hainbat desafio izan genuen herrian. Goizeko 10:00etan, boteluzeko pilota partida izan zen, Etxalar eta Zugarramurdiko ekipen artean. Orain arteko bi partidetan Zugarramurdikoak nagusitu baziren ere, al-

di huntan ez zen hala izan eta Etxalarakoak izan ziren garaile.

Ondotik, Neguko pala txapelketaren finala jokatu zen, eta honetan Kepa eta Alfredo suertatu ziren txapeldun, Manu eta Mattin bikotearen kontra, 40 eta 22 irabaziz.

